

Herririk Herri |4|

Ardo Saltsan, ardo eta delikatessen produktuen bilgune, bihar, Durangon

Ekonomia |10|

Durango Aukera Azokak 20.000 lagun batu zituen Landako Erakustazokan



Berbaz |9|

A. Olariaga: "Modernitatea aztertuta, gaurko arazoak ulertu ditzakegu"

Baserrietako suteei aurre egiteko sistema

> Atxondoko Udalak baserri inguruetan ureztodi-kutxak jartzeari ekin dio asteon.

> Suhiltzaileak heldu arte sua zelan kontrolatu azalduko diete baserritarrei.

3



Arrazola, Axpe eta Apata auzoetako baserri inguruetan ipini dituzte ureztodi-kutxak. Kepa Aginako

Aurrekontuak onartuta, PSE-EE eta EAJren akordioagaz

Durango • Urte bian aurrekontuak luzatu eta gero, martitzeneko udalbatzarrean 2010eko aurrekontuak onartu zituzten. EAJk eta PSE-EEK lotutako akordioak plan ekonomikoa onartzea ahalbidetu du. PPK eta Talde Mistoak kontra bozkatu dute, eta Aralar abstenitu egin da.

2

Mugarra triatloi taldeak ekin dio denboraldiari

KIROLA • Mugarra triatloi taldeak joan zen zapatuan aurkezpen ofiziala egin zuen. Euskadiko duatloi eta triatloi zirkuituan parte hartuko dute, besteak beste. Triatloi eskola indartzea ere badute helburu; orain urtebete sortu zuten, eta dagoeneko ia 60 gaztetxok eman dute izena.

17

Bide Ertzean, gaur, Elorrioko Arriolan

KULTURA • Hamabi urteko ibilbidetan sortutako kantak dakarzkigu Bide Ertzeanek Elorrioko Arriolara gaur gauean: aurreko diskoetako kantak eta aurten kaleratuko duten disko berrikoak ere joko dituzte.

13



• Durangaldea

'Durangaldea maite dugulako' ingurumenaz gogoetan

4

• Berriz

Aurrekontuak onartu dituzte EAJren aldeko bost botogaz

6

• Otxandio

Udal lurrak erabiltzeko lau eskari izan dituzte

6



HERRIRIK HERRI >

DURANGO

PSE-EEren eta EAJren akordioagaz, aurrera egin dute aurrekontuek

Talde Mistoak eta PPK kontra bozkatu zuten; Aralar abstenitu egin zen martitzeneko udalbatzarrean

U rte bian luzatutako aurrekontuekin jardun ondoren, aurten PSE-EE eta EAJren arteko akordioak aurrera ateratu ditu 2010eko aurrekontuak. Martitzeneko udalbatzarrean eztaibaidatu eta bozkatu zituzten; Talde Mistoak eta PPK kontra bozkatu zuten, eta Aralar abstenitu egin zen.

Aitziber Irigoras alkateak emandako datuen arabera, aurrekontuen zenbateko osoa 30,4 milioi eurokoa da. Hortik 8,4 milioi (%27) pertsonalari bideratu zaizkio; inbertsioetara bideratutako 4,2 milioiak (%13,8) kredituekin bideratu dituzte; azkenik, ohiko transferentziak (hitzarmenak, dirulaguntzak...) ia zortzi milioi dira.

PPk 16 emendakin aurkeztu zizkion aurrekontu proposamenari, eta Aralarrek 25; PPko bat eta Aralarreko zortzi onartu zituzten. Onartutako Aralarren proposamenen artean dago kultur etxea merkatu plazan –edo beste toki-

ren batean, proposamen hoberik baldin badago– egiteko proiektua osatzea, 100.000 eurogaz.

Aitziber Irigorasek aipatu zuen hainbat emendakin “interesgarri” aurkeztu zirela, eta “gaur egungo egoera ekonomikoa” dela gehiagori aldeko botoa ez emateko arrazoia.

Onartutako emendakinen artean dago kultur etxea egiteko proiektua osatzeko 100.000 euroko atala sortzea

Talde Mistoak osotasuneko emendakin bakarrik aurkeztu zuten; Aralar abstenitu egin zen eta gainerakoek kontra bozkatu zuten. Ritxar Alberdik aurrekontuak osatzeko ereduagaz ez daudela ados eta “herritarren parte-hartzea bulzatu” behar dela adierazi zuten.

PSE-EEK adierazi zuten “hain-



Emendakinek osotasunean bozkatu zituzten lehenengo, eta banan-banan ondoren.

beste aipatu den” estabilitate instituzionalerako akordioa EAJgaz egindako negoziazioen abiapuntua izan zela, baina “akordioa bera bi alderdien artean borondatea egon delako etorri dela”.

Aralarko Dani Maezturen esanetan, “guk aurrekontuei aldeko botoa ematea zaila da, dena osatu ondoren aurkezten diren aurre-

Aitziber Irigorasek azaldu zuenez, egoera ekonomikoa da emendakin gehiagoren alde ez bozkatzeko arrazoia

kontuak direlako”. Hala ere, “badakigu zer ordezkaritza daukagun udalbatzarrean eta gure filosofia beti izan da aportazioak egitea”.

Azkenik, PPko zinegotzi Cristina Ibarrolak aurrekontu “abertzaleak” direla esan zuen, eta PSE-EEK “aukera ona alperrik galdu” duela aurrekontuetako “filosofia hori aldatzeko”. ■ J.D.



Talde Mistoak prentsaurrekoa eskaini zuen astelehenean.

“Aurrekontuen osaketak aldaketa sakona behar du”

Aurrekontu eztabaidaren aurreko egunean Talde Mistoak prentsaurrekoa eskaini zuen plan ekonomikoaren inguruan daukan iritzia jakitera emateko. Aurreko urtekoekin alderatuta “antzekotasun handiegia” ikusten diote. “Kudeaketa eredu honen guztiz kontra” daudela argudiatuz azaldu zuten ezezko botoa emateko arrazoia. EAJ eta PSE-EEren akordioa “deigarria” egin zaiela diote. Aurrekon-

tuak Durangoko bulegoetan beharrean “Madrilgo parlamentuko bulegoetan adostu direla” kritikatu dute. Herritarren parte-hartzeari bidea zabaldu behar zaiola nabarmendu dute. Udalak egiten dituen ekintzak gutxitzeari ondo deritzote, baina alkatearen eta bost liberatu politikoen soldatak 220.000 euro direla eta diru-atal hori ere murriztu daitekeela diote Talde Mistoko zinegotziek.

“Transparentzia falta ikusi dugu zirriborroan”

Durangoko Alderdi Popularrak ere prentsaurrekoa eman du aurrekontuen udalbatzarrean aurretik, ezezko botoa azaltzeko. Cristina Ibarrolak zalantzan jarri du Gobernu Taldearen negoziatziorako borondatea: “Lehenengo kontaktu baterako ere ez dira guregana etorri, ezta akordio puntualak lortzeko ere”. Popularraren proposamenen artean, minusbaliotasuna daukaten

seme-alaben gurasoen elkartearendako akordioa berritzea, etxerik etxeko catering zerbitzua martxan jartzea nagusiei eta minusbaliotasuna dutenei zuzenduta, San Francisco eta Kobentu plaza inguruak konpontzea eta umea izan duten gurasoendako 200 euroko diru-laguntza herriko dendetan gastatzea ere emendakinen artean proposatu ditu Alderdi Popularrak.



Gastañazatorre eta Ibarrolak ere prentsaurrekoa eskaini zuten.

Turismo arloko eskaintza bertatik bertara ezagutzuz

Otsailean turismo aktiboa sustatzeko eskaintza berriak martxan ipini zituen Turismo Zerbitzuak. Gaur eta datorren ostegunean horietako hiru eskaintza bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiko dute.

Gaur goizean *Arrastoari jarraituz Durango ezagutu* ekimena ezagutarazi dute; gazte txoei bideratutako proposamen ludiko-didaktikoa da. Ondoren, *Sartu zaitez lur azpiaren barrena* ekimena izan da protagonista; honen bitartez, inguruko kobazuloetan espeleologia egi-

Turismo aktiboa sustatzeko sortutako eskaintza berriak ezagutzera eman ditu Turismo Zerbitzuak

teko aukera eskaintzen dute. Datorren egunean, 10:00etatik 11:30era, *Ezagutu mitologiarekin* Durangoren nortasuna, kultura eta izaera beste ikuspuntu batek ezagutzeko aukera eskainiko dute. Azken ekimen hau martxoan ipini dute abian. ■ J.D.



ATXONDO

Baseri inguruetan suteentzako ureztodiak jarri dituzte, eskualdean lehenengoz

Auzokideek suhiltzaileak heldu aurretik sua kontrolatzeko aukera izatea gura du Udalak neurri horregaz

Sua pizten deneko lehenengo ordu laurdena garrantzitsua izaten da su hori kontrolatzeko. Suhiltzaileak, baina, denbora beharko lukete Arrazola, Axpe eta Apatamonasterioko baserri batzuetara heltzeko. Horregatik, auzokideek eurek erabiltzeko ureztodien kuxkak jartzen dabil Atxondoko Udala.

Dagoeneko hamabost kutxa ipinita daude, eta beste bost ere jarriko ditu Udalak. Kutxetan 25 metroko lau ureztodi daude, eta bata besteari lotzeko aukera dago. Ur-harguneetatik gertu daude kuxkak, eta David Cobos alkateak azaldu duenez, "ahalik eta baserri gehienetara heltzeko moduan" kokatu dituzte.

Kutxetan 25 metroko lau ureztodi daude, bata besteari lotzeko modukoak



David Cobos alkateak Arrazolan berriztatutako Mendi baserria duela 15 urte erre zela azaldu du.

Duela aste biko haizete egunetan Santiagotik Axperako bidean haizeak poste elektriko bat bota zuen, eta sasi batzuek sua hartu zuten. Alkateak adierazi duenez, "horrelako ezustekoak ez dira ohi-koak izaten, baina behin gertatuta nahikoa izan daiteke ezbeharraren bat gertatzeko". Azkeneko ezbeharrak orain dela hamabost

urte izan zen, Arrazolan Mendi baserria osorik erre zenean.

Ikastaroa

Kutxa guztiak jartzen dituztenean, udaberrian, baserriarrei ureztodiak erabiltzen ikasteko ikastaroa emango die Udalak. Suaren kon-

Udaberrian egongo dira kutxa guztiak prest, eta orduan Udalak erabiltzen ikasteko ikastaroa emango du

tra erraz moldatzeko azalpenak emango dituzte.

Atxondon 180 baserri daude; 84 Axpen, 52 Arrazolan eta 44 Apatan. Suen kontrako neurri hori gauzatzeko 32.000 euro gastatu ditu Udalak. Foru Aldundiak 13.000 euroko laguntza eman du. ■ A.U.

IZURTZA

Jeltzaleen iritzia herrian radarrak ipintzeari buruz

Udalerria erdibitzen duen BI-623 errepidearen aldamenetan orain aste batzuk agertutako radar faltuen inguruan bere jarrera eman zuten joan zen barikuan jeltzaleek jakitera. Euren Interneteko txokoan argitaratutako oharrean diotenez, Udal Gobernuak "aldarrikatzen duena radarrak ipintzea bada, eskaria behar bezala egitea da egin beharko luketena". Abiadura kontrolatzeko radarrak ipintzeko eskari hori Eusko Jaurlaritzari luzatu beharko lioketela azpimarratzen dute.

Autoen abiadura moteltzeko neurriekin ados daudela baina tramite guztiak bete behar direla diote jeltzaleek

Radarrak ezartzeko esku-duntza Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailarena dela nabarmendu du EAJk, eta udalerraren lurretan abiadura kontrolatzeko radarrak ipintzea instantzia horietan eskatu beharko lukeela udal gobernuak. Udalerriatik igarotzen diren autoen abiadura moteltzeko udal gobernuak hartzen dituen neurriak "aintzat hartu eta defendatuko" dituztela ere badiote jeltzaleek. Beti ere, hartzen diren neurriok "dagozkien tramite administratibo guztiak" beteta hartzea dela bidea ere azpimarratu dute idatzian. ■ I.E.

MALLABIA

Eskolako sukaldariari omenaldi beroa egin diote

Begoña Arrieta eskolako sukaldariak erretiroa hartu duelako, bazkaria antolatu zuten zapatuan



Hainbat opari jaso zuen Begoñak omenaldian.

Bazkari hunkigarria prestatu zioten joan zen zapatuan Begoña Arrietari herriko frontoian. Eskoletako sukaldari lanetan 28 urte eman dituen beharginak herritarren omenaldi beroa jaso zuen. Mahaiaren bueltan 186 lagun elkartu ziren.

Mahaiaren bueltan 186 lagun bildu ziren eskolako sukaldariaren omenaldian

Omenaldi ekitaldian, antolatu zuten Begoñak egindako lana eskertzea eta baloratzea zen euren asmoa. Herriko hainbat pertsona eta familiataz arduratu dela urte horietan azpimarratu zuten sarre-rako berbaldian. Bertsoak bota zizkieten, eta baita aureskua dantzatu ere; bere alaba tartean zela. Eskolako umeen eta irakasleen ekarpenekin osatutako liburua

eman zioten. Eskolan ibili diren umeen argazkiak ere bildu zituzten. Ilobek lore-sorta eman zioten. Eskolakoek ere euren oparia egin zioten.

Abesbatzaren kontzertua

Jasokunde Abesbatza ETB1eko *Oh Happy Day* saioan parte hartzen dabilenez, ekitaldi berezia prestatu zioten sukaldari izandakoari. Telebistan aurkeztu dituzten abestiak taularatu zituzten omenaldian. Publikoak gustura entzun zuen geroago eta ezaguna den taldearen emanaldia.

Ipuin kontalariak ere saioa eskaini zuen. Omenaldia arrakastatua izan zuen karaokeagaz amaitu zuten. ■ J.G.

Eskolako ume eta irakasleen ekarpenekin liburua eman zioten Begoñari

GARAI

Langile bat kontratatuko du Udalak

Tokiko enplegua indartzeko Amankomunazgoak bultzaturiko egitasmoaren barruan, langile bat hartzea dagokio Garaiko Udalari. Maiatzean hasiko litza-teke lanean behargin hori.

Sei hilabeterako kontratua izango da, eta peoi moduan egingo du lan kontratatua. Udalak egingo du eskaera INEMen, beraz, derrigorra da bertan izena emanda egotea. Udal ordezkariak aipatu dutenez, "Garaiko biztanleek lehentasuna izango dute aukeraketa egiteko orduan". Bideen konponketa, lorezaintza, herrigunearen garbiketa eta brigadari laguntzeko hartuko dute behargina. Jaietan eskentokiak muntatzen eta ere lagun-du beharko du. ■ M.O.

ALBERDI HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Emisioa en la colaboración de Merxillas
Alberdi Harategia

ALBERDI HARATEGIA
preziazin bial

DURANGALDEA

III. Durango Ardo Saltsan ferian ardo eta delikatessen jakiak dastagai

Ferian 66 upategi batuko dira zapatuan, Euskal Herrikoak, estatukoak eta nazioartekoak

Landako Guneak eta Saltsan Catering-ek III. Durango Ardo Saltsan feria antolatu dute zapatu honetarako. Roberto Sarriugartek azaldu duenez, Saltsanen helburua "ardo eta delika-

da gero eta handiagoa izatea, baina aurten apur bat hazi gara, iaz 56 upategi zeuden eta ferian; aurten, aldiz, 66". Feriaren bitartez, antolatzaileek "kontsumitzaileei delikatessen elikagaiak eta Euskal Herriko, Estatuko eta nazioarteko (Alemania, Frantzia eta Italia) upategirik garrantzitsuenetako ardoak ezagutarazi gura dizkiegu".

Hitzordu gastronomiko honetan, ardoaz gain, bestelako produktuak dastatzeko aukera ere izango dute bertara joaten direnek; hala nola, olio, urdaiazpiko iberikoa, ahatea eta haren produktu eratorriak, izokin ketua, kafea eta herrialde ugariak urak. Roberto Sarriugartek azaldu duenez, "lehenengoz kabiarrak dastatzeko

aukera ere izango da". Feriara joaten direnek dastatzen duten produktuak erosteko aukera edukiko dute, dendan baino merkeago.

Beste jarduera batzuk ere izango dira; barista batek marrazkiak egingo ditu kafeagaz, urdaiazpiko mozketa egingo dute, Eusko Label produktuekin egindako miniatuazko sukaldaritza standak egongo da, eta upelgile batek barrika bat egingo du.

Azoka dela eta, Durangora datorren jendea herrian geratzeko helburuagaz eskaintza berezi bat prestatu du Turismo Bulegoak; 48 euroren truk, ostatua, gosaria eta azokarako sarrera.

Antolatzaileek, ez dute egun bateko kontua bakarrik izaterik gura, beraz, asteazkenean, kabiarrak dastaketa egin zuten eta eguenean Done Jakue ardatz hartuta sei ardo dastatu zituzten. ■G.A.

"Saltsanen helburua feria kontsolidatzen joatea da, horretarako kalitatea azpimarratuz"

tessen feria kontsolidatzen joatea da, eta horretarako kalitatea azpimarratzen dugu". Hitzordu gastronomiko honetan hainbat herrialdetako 66 upategi bilduko dira. Sarriugartek dioenez, "helburua ez

"Lehenengo biderrez kabiarrak dastatzeko aukera ere izango da"

Azoka dela eta Turismo Bulegoak eskaintza berezia prestatu du



Landako Elkartegian kabiarrak dastaketa antolatu dute. K.A.

Ezker abertzaleak garapen iraunkor "sendoa" aldarrikatu du

'Durangaldea maite dugulako' kanpainaren barruan ingurumena izan zuen hizpide ezker abertzaleak

Joan zen zapatuan *Durangaldea maite dugulako* kanpainaren baitako prentsaurrekoa egin zuen Axpen Durangaldeko ezker abertzaleak. Ingurumena izan zuten berbagai, eta Lurralde Zati Planak bertan izango duen eragina; "ingurumen naturalari eutsi, eta bertan inbertitu" behar dela esan zuten, besteak beste.

Besteak beste, gaur egun planteatzen den garapen iraunkorra "ahula" dela azpimarratu zuten



Joan zen zapatuan egin zuten aurkezpena Axpeko plazan.

Gaur egun planteatzen den garapen iraunkorra "ahula" dela salatu zuten, eta lurralde antolaketaren ereduari begira, garapen hori jasagarria izan behar dela azpimarratu. Horretarako alternatibak plazaratu zituzten. Zaborren kasuan, adibidez, Usurbilgo atez ateko bilketa sistema nabarmendu zuten, "birziklatzea" %30etik %80ra" pasatu dela gogoratuz.

Harrobian "atzerazineko ondorioek" badutela alternatibarik adierazi zuten, "eraikuntzako hondakinak eta materia bizigabeak birziklatuz". Baseri guneari buruz, herriak nekazaritzatik eraikitzea egingarria dela esan zuten; horretarako "elikaduraren subiranotasuna ardatz hartu behar da, barne-beharrak aseko dituen ekoizpenerantz jo behar da, eta tokian tokiko eta sasoiari sasoiko kalitateko produktuak ekoiztu behar dira, baserri bizi direnei ogibide duina bermatuz".

Energiaren inguruan "berezko eskualdean oinarritu beharreko ekoizpen-gune energetiko txikien mesederako, deszentralizazioaren aldeko apustua" proposatu zuten. ■J.D./M.O.

Berdintasun aldarriak lau haizetara zabalduz

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira ekitaldi ugari antolatzen dihardute egunotan



Bilgune Feministak zapatuan murala margotu zuen. A.D.

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta eskualdean antolatutako egitarauak aurrera darraite. Abadiñon, zapatuan, Oihulari Clown taldeak *De película* antzezlanak taularatuko du 20:00etan, Errota kultur etxean. Elorri *La Muerte y la doncella* antzezlanak daikusgai, gaur 22:00etan, Arriolan; domekan 19:00etan, berriz, Durangoko San Agustin kultur gunean. Elorri, Elorri Lore elkarteak antolatuta, *Cándida* filma proiektatuko

dute, martxoaren 17an 16:00etan, Iturri kultur etxean. Iurretako emakumeek bihar afaria antolatuko dute, eta martxoaren 25ean, 18:30ean, *Ez zaitez isilik gelditu* hitzaldiaren bigarren saioa Ibarretxe kultur etxean. Berrizen 13-16 urte arteko neskendako tailerrak apirilaren 16tik maiatzaren 4ra antolatu dituzte, eta hileko azken barikuetan Gure Izarrak emakume elkarteagaz batera barreteratzea saioak. ■J.G.

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

goizeko 08:00etatik goberko 21:00etara **zabalik**
clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
murueta torre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA PROMOZIOAK



990,00 €

Chaiselonguedun sofa. Larru beixa edo moka. Buruko eraisgarriak. Capitone jesarlekuak



1.495,00 €

Chaiselonguedun sofa. Larru zuria, moka edo beltza. Buruko eraisgarriak. Jesarleku labaingarriak

Jaso ditugun azkeneko sorta berriak aurkezten dizkizugu,
telazkoak zein larruzkoak eta prezio ezin hobekoak

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

ELORRIO

Txarriboda antolatu du Portalekuak

Urteroko ohiturari eutsiz, Portalekuan Txarriboda antolatu dute, eta bihar, 21:30ean, bertso afarira batuko dira Alkartu elkartearen. Hiru bertsolarik jardungo dute bertso kantari: Ainhoa Agirreazaldegik, Gorka Lazkano berriztarra eta Eneko Abasolo "Abarkas" iurretarrak. Portalekuako ardura-dunek jakinarazi dutenez, gaur eta bihar oraindik bertso afarirako sarrekerak erosi daitezke Portalekua tabernan; 15 euroan ipini dituzte salgai.

Ainhoa Agirreazaldegik, Gorka Lazkanok eta Eneko Abasolo "Abarkas"-ek kantatuko dute bertso afarian

Txerria atzo hil zuten Abadiñoako Arrandona baserrian. Bihar goizean hitzordua ipini dute Portalekuan txorizoak egiteko, urtero legez. Ondoren, gaueko bertso afarian, besteak beste, txarriekin osatutako menuagaz gozatze-ko aukera eskainiko dute.

Baina bihar gaueko bertso afaria ez da txerriak probatzeko eskainiko duten aukera bakarra izango. Izan ere, domeka honetan, eguerdiko 13:00etan, txarriki dastaketa (odolostea eta gibela) egingo dute Portalekua tabernan bertan. ■ J.D.

ZALDIBAR

Lanpostuetarako eskaerak aztertzen dabil Udala

Durangaldeko Amankomunazgoak tokiko enplegua indartzeko burututako programa dela eta Zaldibari bost lanpostu dagozkie. Horieta lau lanpostu garbitzaile-brigadara bideratuko du Zaldibarko Udalak, eta bat administrari laguntzaile legez aritzeko. Izena emateko epea joan zen barikuan amaitu zen. Garbitzaile-brigadarako 48 pertsonak eman dute izena, eta administrari laguntzaile jarduteko 16. Orain Udala eskaera horiek baloratzen ari da, eta datorren astean hautatuei elkarrizketa pertsonalak egiten hasiko da.

Idoia Mendiagarai Zaldibarko alkateak azaldu duenez, garbitzaile-brigadak "herrian garbiketa orokorra egingo du"; hau da, herriko jesarlekuak eta berriztatu eta lurpeko pasabidea eta parkeak garbituko dituzte. Administrari-laguntzailea liburutegi berriko informatizazioan lagundu eta Udalean arituko da. ■ G.A.

Garbitzaile-brigada lanposturako lau pertsona behar dira, eta bat administrari-laguntzailerako

BERRIZ

Aurrekontuak onartu dituzte, EAJren botoekin

Sarriko eskola zaharreko teilatua konpontzera bideratuko dute 98.000 euroko diru-atala

Asteazkeneko udalbatzaren 2010eko aurrekontuak onartu zituzten, EAJren aldeko bost botoekin. Ezker abertzalea eta PSE-EE abstenitu egin ziren (guztira, 5 abstentzio) eta EAK aurka bozkatu zuen. Aurtengo aurrekontua 5,4 milioi eurokoa da, iaz baino 398.934 txikiago. Jaitsiera hori, batez ere, "Udal Kutxaren dirusarrerak murriztu direlako" izan dela aipatu du Jabier Azpitarte Berrizko alkateak. Inbertsioetara aurrekontuen %2,45 bideratuko dute; hau da, 132.520 euro. Sarriko eskola zaharreko teilatua konpontzeko bideratuko dute diru-atalik handiena; 98.000 euro, hain zuzen ere.

Koldo Mendez, PSE-EEko zinegotziak, aurrekontuak bozkatu ondoren, diru-atal batzuk "gehiegizkoak" ikusten zituela,

EAJk alde bozkatu zuen, ezker abertzalea eta PSE-EE abstenitu egin ziren, eta EAK aurkako botoa eman zuen

baina hobe zela aurrekontu "txar" batzuk "ezer ez" baino aipatu zuen. Ezker abertzaleak "ez du ezezko borobila" eman, aurrekontuak "asko landu" direla eta. Bestalde, Puri Perez EAKo zinegotzia Berriz Susa elkartearen 2008ko gastuen inguruan aritu zen aurkako botoaren arrazoia azaltzeko.

Aurtengo aurrekontua 5,4 milioi eurokoa da, iaz baino 398.934 euro gutxiago

Ezker abertzaleak zinegotzien ordainsarien inguruko emendakina proposatu zuen; zinegotzi bakoitzak hilean 688 euro kobratu beharrean erdira bajatzea proposatu dute; hau da, 344 euroa. "Murrizketa horren bitartez 41.280 euro langabezia dauden herritarren mesederako bideratu ahal izango genuke", azaldu zuen Karmen Amezua zinegotziak. Alkateak erantzun zuenez, "dietek bere helburua daukate, zinegotziak gastu batzuk sortzen ditu,



Dirurik gehien, Sarriko eskola zaharreko teilatua konpontzeko.

eta kontsultazio familiarra, laborala eta politikoa gaitza izaten da. Bakoitzak bere dietekin gura duena egin dezake, bakoitzaren kasua kontutan izan behar da". Ezker abertzalearen emendakina ez zen aurrera atera. ■ G.A.

Ezker abertzaleak proposatutako zinegotzien dieten inguruko emendakina ez zen aurrera atera

OTXANDIO

Udal lurrak erabili ahal izateko lau eskari jaso dituzte

Horieta lau eskaera ortuariak hazteko dira; laugarrena ganadua bazkatzeko eskatu dute

Asteon amaitu du udal lurrak erabiltzeko eskari berriak egiteko epea. Urte baterako emandako erabilera baimena zutenek ere euren eskaera berriztu beharra izan dute. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, lau eskari aurkeztu dituzte Udaltxean. Aritz Otxandiano alkateak eskariak "laster aztertzen" saiatuko direla adierazi du.

Lur batzuk bost urterako uzten dituzte; beste batzuk urte birako izango dira

Udal lur batzuk bost urterako esleitzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, urte birako. Badira, ordea, baldintza zehatz batzuk beteta urtebeteko ustiakarako jaso daitezkeen lurrak ere. Lur publiko guztiak bost urterako ez uzteko arrazoia lur horien epe ertainerako erabilera aldatu egin

daitekeela da. "Lurzati batzuk eremu industrialetara bideratuta daude, eta hango proiektuek aurrera egin dezaketenez ez ditugu epe luzeagorako ematen".

Hainbat erabilera

Emandako lur horiek hainbat erabilera izan ditzakete. Esaterako, Udalarri egindako lau eskarietatik hiruk ortuariak hazteko dira; laugarrenak, berriz, ganadua bazkatzeko erabili gura du.

Guztira 88 lagun ardean daude banatuta lur rak; horietatik 19k ortuariak hazteko erabiltzen dituzte eta gainerakoek larre legez. Ortuarietara bideratuta koetatik 12 bi urterako emanda daude; besteak lau urterako. ■ J.D.

Eremu industrialetara bideratuta daude lur batzuk, eta horregatik esleipen laburragoa egiten dute

MAÑARIA

Jabier Arteaga EAJren zerrendaburu hauteskundeetarako

Jeltzaleek bosgarrenez aurkeztuko dute Arteaga alkategai 2011ko udal hauteskundeetara

Asteon eman du Mañariko EAJko Uri Buru Batzarrak Jabier Arteaga gauregungo alkatea aurkeztuko dutela 2011ko udal hauteskundeetan zerrendaburu.

Jeltzaleen zerrendan alkategai joateko, bestalde, beste hautagairik ez dela alderdiki-deen bozketara aurkeztu azaldu dute jeltzale mañariarrek. Hautagai bakarra izan den Jabier Arteaga, 1995etik herriko alkate

dena, aurkeztuko du EAJk, beraz, udal hauteskundeetara Mañaria-ko zerrendaburu. Herriko alkate izateko, bosgarrenez aurkeztuko du bere burua Arteagak datorren urteko hauteskundeetan. ■ I.E.

Jeltzale mañariarrek adierazi dutenez, ez da beste hautagairik aurkeztu



1995. urtetik da Jabier Arteaga alkate. Iban Gorriti



ABADIÑO



Errota kultur etxean egin zuten aurkezpena, joan zen barikuan. Ana Domínguez

Datozen hiru urteetan garatuko duten Planaren aurkezpena

Euskararen erabilera bultzatzea helburu duten hainbat ekintza jasotzen ditu I. Euskara Planak

Jendeak erantzun zuela eta nahikoa herritar hurreratu zela joan zen barikuko I. Euskara Planaren aurkezpena azpimarratu dute udal arduradunek. Barikuko aurkezpena hurreratu zirenetariko zenbait planaren disei-

Hizkuntza ohiturak belaunaldi berriei transmititzeak daukan garrantziaz jabetuta, horixe du planak langai nagusi

nuan parte hartu duten Aholku eta Jarraipen batzordeetan jardun duten herritarrak ziren: aurrerantzean ere Euskara Planaren garapenean zeresana izango dute herriko elkarteak ordezkariek.

Abadiñon dagoen euskaldunen kopurua (herritarren %73) oinarri hartuta, hizkuntza ohiturak belaunaldi belaunaldi transmititzeko bultzada ematea da euskararen egitasmo honen helburu nagusietako bat: ume jaioberrien gurasoak euskararen normalizazioan familia transmisioak daukan garrantziaz ohartaraztea helburu duen kanpaina ipiniko dute martxan, besteak beste, barikuan aurkeztu zuten Euskara Plan honen barruan datozen hileetan. ■ I.E.

Preso politikoaren eskubideen alde barauan

“Bizi osorako zigorren kontra, gaitxo larriak etxeratzearen alde, inkomunikazioaren kontra eta Euskal Presoen Euskal Herriratzea” aldarrikatzeko antolatutako baraualdia egingo dute martxoaren 12tik 14ra arte Abadiñon.

Euskal preso politikoaren eskubideak aldarrikatzeko deitu dute baraualdia

Txanporta plazan hasiko dute baraualdia gaur, 19:30ean, eta preso ohiak berbalagun izango dituen mahai-ingurua dago martxoaren 13rako iragarrita: asteburuko baraualdirako aurreikusituzten ekintzen artean dago 17:00etan izango zen mahai-ingurua.

Domekan, 13:00etan, Txanporta plazan egingo duten kontzentrazioagaz eta ondoren salda beroa hartuz emango dute ekimena amaitutzat. ■ I.E.

San Trokaz jaiak iragarriko dituen kartela

Aurkezten dituzten kartelen lehenengo hautaketa epaimahai batek egingo duen arren, San Trokaz jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko azken berba herritarrek izango dute: gustuko duten kartelaren alde bozkatzeko aukera izango dute. Sari nagusia 600 eurokoa da, herritarrek erabaki ahalko dutena; 350 euro jasoko dituen egile abadiñarren arteko onena, aldiz, epaimahaiak aukeratu du.

Apirilaren 9a baino lehenago parte-hartzaileek Errota kultur etxean aurkezten dituzten kartelak, apirilaren 12tik 21era arte ipinko dituzte Txaportan ikusgai, herritarrek gustuko dutena hautatzeko. ■ I.E.

600 euroko lehenengo saria jasoko duen kartela aukeratu dute herritarrek

IURRETA

Udaleko bost langile berrien kontratazioa

Durangoko Amankomunazgoak tokiko enplegua indartzeko martxan ipinitako programagaz bateginda, Iurretako Udalak sei hilabeterako kontratatuko dituen bost langileren hautaketa prozesua burutzen dihardu. Udalean azaldu dutenez, 40 lagun inguruk eman zuten brigadako langile izateko hautaketa prozesuan parte hartzeko izena, eta baldintzak betetzen dituztenetarik bost aukeratzeko elkarrizketak eginen dihardute orain.

Udalaren bost langile berriak Aste Santu ondoren lanean hasita aurreikusituzten Udalean, Iñaki Totorikaguena alkate jeltzaleak azpimarratu duenez. Ekimenaren bultzatzaileek nabarmendu dutenez, “langabeziaren hazkundeari ekintza zuzenekin” erantzuteko modua da Amankomunazgoak lagundutako udal kontratazioen programa. ■ I.E.

DURANGO

Umeentzako ekintzak martxoan, Berbaroren eskutik

Domeka honetan, martxoaren 14an, 17:30ean, Plateruenean izango da hil honetarako Berbaro euskara elkarteak luzaturiko umei begirako programazioaren lehenengo proposamena: Sointek taldearen *Musika tresnen fabrika* antzezlan, eguneroko bizitzan musikak duen garrantziari buruzkoa, izango da 10 urte arteko umei zuzenduta: kantatu eta dantzatzeko aukera ere izango dute bertaratzen diren haurrek. Martxoaren 28an bestalde, kariokak, firi-firiak eta malabareak egiten ikasteko tailerra izango da Plateruena kafe antzokian, 17:30ean hau ere. Hirutik hamar urtera arteko umei zuzendurikoa da tailer honetako.

Markel Gamboak hitzaldia eskainiko du gaur Pinondon

Santi Sapuherri elkarteak eta Durangoko Alde Zaharrak antolatuta *El movimiento LGT en Euskadi* izeneko hitzaldia eskainiko du Markel Gamboak gaur, 19:00etan, Pinondo Etxeko areto nagusian. Euskal Autonomia Erkidegoko gay, transexual eta lesbien inguruko mugimenduaren inguruan jardungo du Gamboak: “Begiak irekiko dizkigun hitzaldia izango da, eta errealtatea ez dela imajinatzen dugun modukoa ikusiko dugu”.

Juan Itziarkoko elkarteak eta Santi Sapuherriko ordezkariak azaldu dutenez, “gaurko hauxe da Santi Sapuherri antolatutako lehenengo hitzaldia”.

IURRETA

Aste Santuko tailerrak eta Udalekuak martxan

Kimuak aisialdi elkartearen Aste Santurako eta udarako eskaintzan izena emateko epea hasita dago; martxoaren 26a izango da azken eguna. Aste Santuko tailerrak, LH 3. mailatik DBH 1. mailara arteko gazteentzat izango dira. 10 euro balio du matrikulak. Udalekuei dagokienez, finkoa eta ibiltaria antolatutuzte. Uztaileko lehenengo hamabostaldian ibiltarian murgilduko dira DBH 3. mailatik 17 urtera arteko gazteak. Bigarrenean, finkoan, LH 5. mailatik DBH 2. mailarakoak batuko dira. 190 euro balio du; 170 etxe beretik bi joanez gero, edo familia ugariak izanez gero. Kultur Etxean eman behar da izena.

OTXANDIO

Ikusmina liburu aurkezpenean



Joan zen barikuan aurkeztu zuen Udalak *Otxandioko Tptonimia* liburu, eta jende ugari batu zen aurkezpenean. Liburuan, Otxandio eta Oletako ehunka toponimo jaso ditu Asier Astigarrraga filologoak. Aurkezpenean, toponimiak “inguru naturala humanizatzeko edo gizatiarrago egiteko” betetzen duen funtzioa aipatu zuen. Horregaz batera, Otxandiok bere izenaren jatorriaren inguruan daukan kondairaren balioa ere azpimarratu zuen, herriari izaera berezia ematen diolako. Aurkezpenaren ondoren, liburuaren ale bana eta luntxa jaso zuten joan ziren guztiek. Liburu Udaletxean eta dendetan salgai dago, 5 euroan.

Baserritarren eta
Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

IRITZIA >

Gutunak @

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker Abertzalea

Torturakrazia

Estatuak legeak ezartzen omen ditu. Eta estatuak omen dauka biolentziaren monopolioa, legeak betearazteko. Monopolio hau gauzatzeko, estatuak badi- tu erakunde ugari, armatuak denak. Ejertzitoak, hainbat poli- zia talde, zerbitzu sekretuak, inkontrolatuak... Guztiek badi- te biolentziaren erabilera, euren gaitasunaren seinale. Eta hori bermatzeko legedi oso bat era- tuta dago.

Biolentziaren erabilera badu, berriz, mozkorra dirako arriskua, inpunitatean oinarritu- ta; estatu batek bere burua demo- kratikoa deitzen duenean ezinez- kotzat jotzen dena, alegia. Horre- gatik, Espainiako "demokratek" ezinezko jotzen dute tortura iza- tea aldi berean euren biolen- ziazaren inpunitatearen seinale- rik ikusgarriena eta ezkutuen.

Espainian torturatzen da; tortura ohiko praktika dute demokraziaren zaindarien; tor- tura legeak babestua da, eta hori estatu demokratikoa biolentzian oinarritzen dutelako gertatzen da. Hori sustatu eta bermatu egi- ten duen estatua ezin da, inola ere, demokratiko deitu, baterae- zinak baitira bi kontzeptu horiek.

Beldurra zabaltzeko erabil- tzen du tortura, helburu politi- koak lortzeko ere bai; are gehia- go, beldurra zabaltzea helburu politikoa du estatu espainolak, eta hori ezin da ez legearekin ezta demokraziagaz lortu, soilik tor- turaz apaindutako biolentzia- gaz.

Muga bat jarri da gure artean: "demokratikoek" beti ukatuko dute hemen tortura- tzen denik. Herritarrok, berriz, hori gezurra dela badakigu, eta, denborarekin, Espainian demo- krazia eta tortura txanpon bera- ren alde biak direla sinestera heldu gara.

Biolentziaren erabilera, badu mozkorra dirako arriskua, inpunitatean oinarrituta

Hezkuntza deialdia

Martxoaren 13an Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak bul- tzatutako manifestazioarekin bat egiten dugula adierazteaz gain, ekimen honen izaera eta manifestazioa bultzatzeko arrazoiak azaldu nahi ditugu gutun honetan. Euskal Herriak Bere Esko- la irakasle, ikasle, guraso eta hezkuntzaz arduratzen diren herri- tarrek sortutako deialdi zabala da. Hezkuntza sistema propioa- ren alde gauden kolektibo guztietako lagunek osatzen dugu: sare desberdinetako irakasle, guraso, ikasle, langile eta herri- tarrek.

Mugimendu hau ez da gaurkoa, orain dela urte batzuk jarri zen martxan, eta gaur egun bizi dugun egoerak bultzatu du hez- kuntza deialdi batera deitzea. Deialdi honetan herri bezala batzen gaituen hezkuntza sistema propioaren beharra aldarri- katuko dugu, eta, bakoitza berean tematu ordez, gaur egungo hezkuntza sistemak dituen eskubideen gabeziak salatuko ditu- gu.

Hasteko, gure nortasuna garatzeko beharrezkoa dugun hez- kuntza sistema ezin dugu eraiki, ezin dugu eskola eredu propioa izan, ezin dugu gure hizkuntza, kultura, historiaren transmisioa bermatuko lukeen curriculuma martxan jarri.

Gabezia estruktural hauez gain, hainbat urtetan hezkuntza sistema propioaren alde egindako lanez lortutako aurrerapen txikiak desegin nahi dituzte. Hor daukagu Euskal Herria hitzari eman nahi zaion eduki faltua. Hor daukagu euskararen berres- kurapena ezinezkoa egiten duten A eta B ereduak berpizteko eta indartzeko saiakerak. Bestalde, ezin dugu ahaztu hirueletasu- naren aitzakian euskararen presentzia curriculumean ahultze- ko egiten ari diren saiakerak. Onura baino ez digutela ekarriko esaten digute, baina interes berezia dute Euskal Herrian mar- txan jartzeko. Bide horretatik bideratzen ari dira eskolei ematen zaizkien laguntzak; adibidez, ingeles errefortzuko egonaldi trinkoak doan dira gaur egun.

Erasoak hartu duen neurria ikusita, nahikoa dela ozenki esa- teko unea heldu dela iruditzen zaigu.

Horretarako, martxoaren 13an Bilbon erantzun handi bat ematea espero dugu. Denok atera behar gara kalera hezkuntza sistema propioaren defentsan. Herritar guztiok inplikatu behar gara, hezkuntzan denon etorkizuna jokoan dagoelako.

Durangoko Euskal Herriak Bere Eskolako partaideak

Zorionak, eskerrik asko eta animo!

Dagoeneko urtebete pasa da lanean hasi ginenetik, urtebete ilusioz eta amets bezalako proiektu bati ekin genionetik.

Urte honetan hainbat eta hainbat izan dira bidaide izan ditu- gun lagunak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu gure ekintzetan par- te hartzerantz animatu zareten haur, gaztetxo, gazte eta gurasoei. Zuek zarete gure taldearen funtsa. Zuentzako egiten dugu lan eta aurre- rantzean ere berdin jarraituko dugu.

Eskerrak gure elkartearen lanean ibili zareten begirale eta lagun- tzaile guztioi ere, zuek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako proiektu hau aurrera ateratzea. Bide honetan guztian irribarre baten tru- ke egin duzue lan, sarritan, egiten ari garenean sinesten dugune- an, irribarre batek munduko urre guztiak baino gehiago balio duelako.

Eta ahaztu gabe, momentu honetan, esker beroenak gure has- tapenetan patroi izan dugunari bidali behar dizkiogu. Aupa Eñaut, laster zara gurekin berriro!

Gaur egun, haur eta gazteentzako aisialdian dauden gabeziak ikusita, beste aisialdi eredu baten alde, Durangaldeko herri eta espa- rru ezberdinetako gazteak batu ginen, lanerako gogoz. Hezkidetzan, elkarrekiko errespetuan, naturarekiko maitasunean eta kulturarte- kotasunean oinarritutako aisialdi eredu baten alde dihardugu lane- an. Eta noski, hau guztia euskaraz, gure aisialdi taldearen helburu nagusia euskararen alde egitea delako, azken batean euskara dela- ko euskaldun egiten gaituena.

Urte bete pasa den honetan, gure hastapenetako konpromiso- ak berresten ditugu eta aurrerantzean ere lanean jarraituko dugu. Lehen urteko plangintza xumetik abiatuta, aurtengoan dagoeneko eskaintza zabalago batekin gatzoz: udalekuei, asteburu pasa bat, Aste Santuko tailerrak eta San Migeletako haurren eguna batu zaizkie dagoeneko, eta urtea bukatu aurretik beste txango pare bat ere badi- tugu buruan...

Bukatzeko ez zaigu animoak zabaltzea besterik geratzen: ani- moak begiraleei zuen lana ezinbesteko delako, animoak gurasoei eta, batez ere, haur eta gaztetxoei, zuek gabe ez garelako ezer. Ani- matu eta hartu parte gure ekintzetan.

Zorionak, eskerrik asko eta laster arte!

Kimuak aisialdi elkarteak

Klik batean @



Udal hondakindegia Durangon?

Argazkiak dena esaten du. Ematen duenez, Durango Kirolakeko arduradunek Arripausuetako kirol instalazioa hondakindegia moduan amortizatzea erabaki dute, aho betean Agenda 21 dara- bilten udaleko alderdi politikoen onespenearekin. Bitartean, gure seme-alabak futbol 7an aritzeko instalazio hauetara daramatza- gun gurasook partiduari eta zikinkeria gune honek suposatzen duen arriskuari begira egon behar dugu. Kontuan izan barik bis- tan datozen taldeen aurrean ematen dugun irudi txarra. Gober- nu Taldeari badirudi ez diola axola. Baten batek bere ardura publi- koki bere gain hartuko du?

Juan Carlos Poderoso Martinez

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko martxoaren 12a - 9. urtea - 364 zk.

Laguntzailea: BFA DFB (Euzko Foru Aldundia)

Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

BERBAZ >



Andoni Olariaga•

- Berriztarra da
- 25 urte ditu

“Modernitatea ez dugu gainditu, Erdi Aroan gaude”

Modernitatea interpretatu zuten pentsalariak aztertu ditu Andoni Olariaga berriztarrak

Modernitatearen auziaz' liburua kaleratu du Andoni Olariaga berriztarrak Jon Jimenez tafallarragaz batera. Filosofia ikasketak amaituta, 1500 eta 1900 arteko zenbait pentsalari aztertu dituzte, gaur egungo arazo etiko eta filosofikoak hobeto ulertzeko asmoagaz. Filosofia gaiei buruz 'Lapiko kritikoa' izeneko blogean ere idazten dute.

Bestela pentsatu ohi bada ere, modernitatea gainditu bako aroa dela diozue liburuan...

Erdi Aroan Jainkoak esaten zuen zer zegoen txarto eta zer ondo, eta zelan gizartea antolatatu. Modernitatean, arrazoiaren bitartez esaten zen zer den egia, eta Estatuak hartu zuen Elizaren lekua. Oraindik garai horretan gaude, edo atzerago; Estatuak kontzientzietan sartzen da. Gainera, berak esandakoaz bat ez datorrena

gizartetik kanpora geratzen da. Erdi Aroan inkisizioagaz gertatzen zen moduan.

Modernitatea interpretatzeko orduan, desadostasunak daudela aipatzen duzue.

Bai, eta interpretazio horien atzean interesak daude. Modu batera interpretatuta justifikatu egin daiteke botereak kontzientziaraino sartzeko daukan ahalmena. Eta horrela interpretatzen badugu, botereak orain arte egin duen berbera egiten jarraituko du.

Zertarako balio dezake modernitatea interpretatzeak?

Gaur egun krisian gaude; etikoki, sozialki... ez dakigulako zer dagoen ondo eta zer dagoen txarto. Modernitatea aztertzen badugu, daukagun arazo horiek hobeto ulertuko ditugu. Modernitatean gertatu zena txarto interpretatzen badugu, berriro jausiko gara errore berdinetan.

Krisian gaude, orduan?

Bai. Lehen esaten genuen estatua horrela antolatuta zegoela Jainkoak esaten zuelako; gero arrazoiak egiten zuen hori, eta orain hori galdu egin da. Arrazoiak indarra galdu du. Orain ez dago erantzunik, baina jarraitzen dugu pentsatuz badagoela. Posmodernitatea modernitatearen krisia da.

Orduan, postmodernitatean gaude gaur egun!

Egon beharko ginatke, baina gure mentalitatea ikusita, estatuak jarraitzen du leku hori betetzen. Estatuak dauka lehenago Jainkoak eta arrazoiak zeukaten lekua. Erantzunik emateko papera hartu du estatuak.

Zergatik pentsatzen dugu postmodernitatean gaudela?

Bagaude eta ez gaude. Batzuetan onartzen dugu arrazoimenak ezin duela definitu zer dagoen ondo eta zer txarto. Hor daude senti-

menduak, mitoak, erlijioak... Adibidez, abortua: esan genezake kasu batzuetan onartzen dugula, eta beste batzuetan, berriz, ez. Gero ablazioari buruz berba egitekoan, adibidez, argi diogu ezetz. Batzuetan postura bat ziurtasun absolutu batez defendatu dezakegu, eta beste batzuetan ez. Nahasketa bat daukagu modernitatearena eta postmodernitatearena. Gure tesia da modernitatea ez dugula gainditu, eta ez dugula ondo pentsatu. Postmodernitatean 'egia' puskatu egin da. Horrek ziurtasun falta dakarkio gizarteari eta gizakiari. Zelan konponduko gara, ez badakigu zer den ona eta zer txarra? Gizakiak ziurtasunak behar ditu, eta estatuak ere bai. Esan behar du "nire biolentzia ona da, eta nire kontra-koa ez". Lehenago jainkoa zuen, gero arrazoiak, eta orain arrazoiak, morala... erabiltzen ditu hori justifikatzeko, Erdi Aroan legez. ■ A. Ugalde

“Modernitatea interpretatzen badugu, gaur egun daukagun arazoak ulertuko ditugu”

“Lehenago Jainkoak eta gero arrazoiak zeukan lekua hartu du Estatuak”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

+Dendak-ek "oso ontzat" jo du aurtengo Aukera Azoka

Aukera Azokara 20.000 pertsona inguru joan dira; 12.000 erosketa egin dituzte

Asteburuan +Dendak-ek antolatutako 5. Aukera Azokara 20.000 pertsona inguru bertaratu zirela aipatu du Guillermo Oarbeaskoa +Dendak-eko presidentea, eta 12.000 salmenta egin zirela; espektatiba guztiak gainditu direla azpimarratu du. Aurtun, gainera, Azokako atek lehenago zabaltzea erabakitzea "arrakastatsua" izan dela dio Oarbeaskoak: "Sorpresa izan zen".

Antolatutako ekitaldien artean Poneyek izan zuten arrakasta gehien

Eguerdian lasaiago erosteko aukera egongo zela uste genuen, baina orduan egon zen beteen". Antolatu dituzten ekitaldiek ere harre-
ra ona izan zutela azaldu du Oarbeaskoak, "baina poneyek izan zuten arrakasta gehien." ■ G.A.



Azokan 12.000 salmenta egin zirela aipatu du + Dendak-ek

> DURANGO



Udalbatzarrean Fundifeseko 40 bat langile batu ziren.

Fundifeseko langile ohiek udaletxean egin zuten gaua

Ertzainek eta udaltzainek hurrengo goizean desalojatu zituzten Fundifeseko 40 bat langile

Fundifeseko 40 bat langile ohiek udalbatzar aretoa bete zuten martitzenean. Jesus Mari Vicentek, langileen ordezkari legez, Fundifeseko lurrak berkalifikatzeko eskatu zuen berriro, eta erantzun bat jaso arte ez zirela irtengo esan zion Aitziber Irigoras alkateari. Honek ez zien erantzunik eman, eta hainbat langilek udalbatzar aretoan eman zuen gaua. Jesus Mari Vicenteren esanetan, goize-

ko 06:30ean "bultzaka eta modu txarrean" ateratu zituzten Udaletxetik, eta "alkatearen aginduz" izan ei zen hori. "Ez dut ulertzen", dio, "gu baketsu ari ginen". ■ J.D

Fundifeseko langile ohiek lurrak berkalifikatzeko eskatu zuten berriro ere

Sindikatuak eta patronalak gaur egingo dute bilera berriz

Gaur bilduko dira sindikatuak eta patronala, aste honetan, bigarren, eta Durangoko LAB sindikatuaren ordezkariak azaldu duenez, bileraren ondoren erabakiko dute grebekin jarraitu edo bertan behera utzi.

Kudeaketa zuzeneko eskola-jangeletan aste honetan bi egunetan egin dute greba eta eskualdean 2.100 ikasleri eragin die horrek. Durangoko LABen datuen arabera, egunean Zabalarra herri- eskolan %100eko jarraipena izan du grebak. Landakon, berriz, %50ekoa eta Matienan ere bai. Elorrio, Zaldibar eta Iurretan %100ak jarraitu du. Berriz ez du jarraipenik izan. Sindikatuak "azken greba izatea" itxaroten dute.

Durangaldeko LABen ordezkariak dioenez, patronalak egingo proposamena "ez da nahikoa", baina "aztertze modukoa da". "Orain negoziazioa hasiko dugu". ■ G.A.

■ kolaborazinoa



Jose Petite
CCOO sindikatua

Pentsioen aldeko mobilizaziorik eraginkorrena

Erretiro adina 65 urtetik 67 urtera atzeratzeko lege-proposamena egin du egun hauetan Espainiako Gobernuak. Era berean, kotizazio topea 15 urtetik 20 urtera igotzeari buruz berbetan hasi da (35 urtetik 40ra, berriz, %100 jasotzeko) eta pentsioek behera egin dute. CCOOren ustez, neurri horiek ez dira batere bidezkoak, eta horien kontra egiteko hainbat mobilizazio egin zituen Euskadi osoan - Bilbon otsailaren 27an, esaterako - non milaka lagun bildu ziren.

CCOOk hainbat errebindikazio ditu. Horien artean garrantzitsuena, agian, 2006an Toledoko Itunean CCOO eta UGTri esker sinatu zen jubilatuen errelebo kontratuei eustea da; nagusiei aurretiko erretiroa ematen dielako eta gazteei lan merkatura sartzeko aukera. Patronala diru asko irabazten ohi dago, eta dena poltsikora eramaten du: ez du inbertsiorik egiten, ez du sare industrial indartzen, eta industria babesik gabe lagatzen ari da. Gobernuak, berriz, oposizioari kontra egiten gastatzen ditu indarrak, eta oposizioa ez dago laguntzeko prest. Guri barrezka ari dira, eta langileekin jolasten, xakeko peoiak bagina moduan. Irtenbideak aurkitu behar dituzte, langileak lan egiteko gaudelako, eta ez, gaur egun moduan, esplotatuak izateko.

Bestalde, egungo krisi ekonomikoa eta gizarte segurantzaren zaku berean sartu ez ditzan eskatzen diogu Gobernuari. Gizarte Segurantzak 62.000 milioi euro du bere erreserba fondoan. Ez dago krisian, nahiz eta 80ko krisian ere pentsioak ez zirela kobratuko iragarri zuten agoreroek. Horrelako iragarkiekin beldurra eta estresa besterik ez dute sortzen langileengan.

Esandako guztiarengatik, beste euskal sindikatuak batera mobilizazioak egitea ezinezkoa izan arren, CCOO, behintzat, kalean aurkituko gaituzte. Mobilizazioa gure arma bakarra delako: ez da greba orokorra egiteko garaia, guztion artean irtenbideak topatzeko momentua baizik.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Nemen agertu gura badozu
deitu!

94 621 79 02

KULTURA>



PINTURA> ERAKUSKETA

Pertzepzioari zabaldutako Biderbosten koadroak

Fernando Biderbost (Bilbo, 1955) artistaren lanen bilduma da Durangoko Museoan joan zen barikutik apirilaren 4a arte ikusgai dagoena. Joan zen bariku iluntzean egin zuten inaugurazio ekitaldia.

1970eko hamarkadan Bilbon abiatu zuen margogintzan bere ibilbidea, eta ordutik galeria eta museoetan erakutsi izan ditu bere koadroak. Euskal Herriko margogintza abstraktuaren arloko bigarren belaunaldiko artisten taldean sailkatu izan dute arte kritikariek Biderbost. Espresionismo abstraktuaren alorrekoak dira bere lan gehienak, baina, artistak berak dioenez, inkontzientean sortutakoak dira bere margoak.

Ehundurak, koloreak, marrazkiak eta margo egindako orbanak uztartzen ditu bere koadroetan Biderbostek. Eta arkatzez eta boli-grafoagaz egindako marrazkiak ere agertzen dituzte Museoan eskegita dauden zenbait lanek.

Margotzean, "pertzepzioari zabaltzen" zaiola azaltzen du artista bilbotarrak: bere asmoa ez dela koadroen bitartez bere sentsazioak adieraztea, "ikusleengan emozioak sortzea baizik", dio Durangoko Museoan bere lanak erakusgai dituen bilbotarrak. Artistak norbere burutik ihes egitea dela emozioak sortzeko formularik proposena adierazten du Fernando Biderbostek, eta horrela egiten ei du berak lan. ■ I.E.

12 'Ateak, leihoak eta aldabak'

Datorren astelehenean hasi eta martxoaren 30era arte Berrizko Kultur Etxean izango ditugu Maite Gorrotxategi berriztarrak egindako argazkiak erakusketan bisitagai.



13

Bide Ertzean, Arriolara

Tolosan iazko urtarrilean grabatu eta Durangoko Azokan aurkeztu zuten 'Leidor sessions' diskoan oinarritutako kontzertuan, gaur: Bide Ertzean.

MUSIKA > KONTZERTUA

Arizona Baby eta Clem Snide: gitarra kanten zutabe nagusi

Martxoaren 18an Plateruenean da Clem Snide Estatu Batuarren eta Valladolideko Arizona Baby taldeen disko berrietako kanten aurkezpena

Rock, country eta psychodelia doinuak lantzen dituzten Valladolideko hiru musikariek osatzen dute Arizona Baby. Madrilen kontzertua eskaini eta gero, Bartzelonako zuzenekoaren aurreko gauean izango ditugu Plateruenean, itxura guztia AEBetako mendebaldeko herri batekoak izateko duten Valladolideko hiru musikariak. Estatu Batuetatik berriz, Clem Snide taldeko hiru musikariak datozkigu.

Gitarraren country doinuek eratorritako kantak dira talde biek 2010 hasiera honetan kaleratu dituzten disko berrietan bildu dituztenak. Eurenak, baina, folk edo country direnik ez dute esaten; euren rock akustikoa dela zuzenean erakusten ei dute. Zuzenekoei buruz, "benetakoak eta basatiak" direla euren kontzer-

Rock akustikoa egiten dute Plateruenean izango diren talde biek

tuak esaten dute Arizona Baby taldeko musikariek.

Second to none diskoa dakar Plateruenera Arizona Babyk, eta otsailean kaleratutako *The Meat of life* aurkeztuko du, bestalde, Clem Snide taldeak. ■ I.E.



'Second to none' diskoa aurkeztera dator Arizona Baby

Otsailean kaleratu zuen Clem Snidek 'The Meat of our life' diskoa

BERTSOLARITZA > LEHIAKETA

BBK txapelketaren bigarren kanporaketan, Bilboaldea garaile

Durangoko Institutuan izan zen Durangaldea eta Bilboaldearen artekoa

Durangaldeko taldeak ezin izan zuen martitzenean Durangoko Institutuan izan zen saioan Bilboaldeko bertsolari gazteen lana hobetu. Bilboaldekoek baino 33 puntu gutxiago eskuratu zituzten gure eskualdeko bertsolari gazteek. Joan zen martitzen eguerdian joka-

18 urtera artekoetan 33 puntu gehiago batu zituen Bilboaldeak

tu zuten BBK sariketako bigarren kanporaketa, eta 18 urte artekoetan egon zen aldetik handiena: 157 puntu batu zituzten Durangaldeko Aitor Bizkarra, Unai Agorria eta Ane Alegriak, eta 190 Bilboaldeko Txaber Ormazabal, Olatz Ipiña eta Pello Ormazabalek.

Beranduagoa izan zen bestalde, 18 eta 24 urte arteko lehia: Jon Ander Urkiaga, Ander Aldazabal eta Eñaut Uruburu izan ziren Durangaldearen ordezkariak, eta Arkaitz Zipitria, Iker Uribarren eta Irati Erkizia Bilboaldekoek baino puntu bat gehiago jaso zuten: 201 puntu bildu zituzten.

Guztira, Durangaldeak 358 eta Bilboaldeak 390 puntu batu zituzten Durangoko Institutuan jokatu zuten kanporaketan. ■ I.E.

Bilboaldeak 390 eta Durangaldeak 358 puntu batu zituzten



GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia Euskaltzaina

Durango, Iurreta eta Zaldibarko udalei

Gerediaga elkarteak hainbeste inizatiba plazaratu ditu bere berrogeita bost urteetan, ez bakarrik Liburu Azoka. Bi aipatuko ditut gaur, bata Merindadeko udalen arteko Amankomunazgoa; bestea Durango Inguruko Baserritarren Elkartasuna, DIBA, alegia. Lehengo sortzea 1966ko abuztuaren 6an, Salbadore egunean, Gerediagako ermitan, Durangaldeko alkateak aurreikusitakoan, elkar-terean bultzadaz. Hurrengo urte batean, eskualdeko hiltegia udal-ek amankomuneko egitea pentsatu eben. DIBA sortzea erabaki zenean, helburuetariko bat, hiltegia, begi bistan zegoen.

Onartezina deritzot berrogei urte geroago hiltegioko mankomunitatean Durango, Iurreta eta Zaldibarko partaide ez izateari. 'Erralde' euskal hitz egokiaz izendatutako mankomunitateak martxa oso onuragarrian dihardu, baserritarren eta kaletarren mesedetan. Gure eta inguruko beste eskualdeetako abeltzainek etxaldeko korta eta larretako ganaduak dakarrez mankomunitateko behin behingo hiltegiara. Horretara, kontsumitzaileok labeldun okela jan geinke, eta ez nongo jatorrikoak ez dakigun "marka zuriduna"; baliteke Polonia edo Irlandakoak izatea...

Euskal nekazaritzaren egoera larria ikusita, eskualdeko baserritarren solidaritatez baino ez bada be, kontzientzia behartuta egon beharko lekie Durango, Iurreta eta Zaldibarko alkate eta gaitzietako zinegotziek Erralde mankomunitatean sartzea. Zer arrazoi dago kontra egoteko: ideologiko-politikoak? Ez dot uste, hiru alkateok eta Erraldeko presidentea alderdi berekoak baitira. Oposizino udal taldeek elkartu dira hiru herriotan?

Eitua poligonoaren iparraldean, Ametzualdean, traba guztiak gainditu ondoren, azkenean, eraikiko da eskualdeko hiltegia. Ea, behingoz, Durango, Iurreta eta Zaldibarko udalak egiten diren partaide. Durangoko hiritar eta kontsumitzaile legez eta baserritarrekiko solidaritatez, horixe espero dut.

PROGRAMAZIOA > Berrizko Kultur Etxea

Umeentzako antzerkia eta Maite Gorrotxategiren argazkien erakusketa

Gaur da Martinez ipuin-kontalariaren saioa, eta astelehenean aurrera, berriz, argazki erakusketa

Sukaldaria izan gura lukeen Lucas untxiaren istorioagaz hasten den ipuina ekarriko du Berrizko Kultur Etxera Rosa Martinezek gaur. Untxiaren gainera, baina, otsoa, printze izan gura lukeen igela eta gazta itxura hartzen diolako ilar-gira joatea nahi luken Ulises sagua ere badira *Hala bazan* ikuskizunaren protagonista.

Gaur 17:30ean da Rosa Martinez ipuin kontalariaren saioa

Umeei zuzenduriko ikuskizunak eskola, liburutegi eta antzokietan egiten esperientzia handia duen Martinezek gaur 17:30ean egingo du Berrizko Kultur Etxean emanaldia. Hiru urtetik gorako ume berriztarrak bereziki gonbidatu dituzte gaur arratsaldeko emanaldira Rosa Martinezek, eta

bere ikuskizunaren protagonista diren lagunek ere.

Gorrotxategiren argazkiak Astelehenean aurrera Berrizko Kultur Etxeko sarrera aretoko hormetan ikusgai izango ditugunak, berriz, Maite Gorrotxategi berriztarrak egindako argazkiak dira. *Ateak, leihoak eta aldabak* izeneko bilduma da Gorrotxategi, martxoaren 15etik martxoaren 30era arte, bere herriko kultur etxean ikusgai ipiniko duena.

Urtarril amaieratik otsail hasierara arte *Urtaroak* erakusketa izan zuen Gorrotxategi Berrizko Kultur Etxean ikusgai; paisaien argazkiak ziren. ■ I.E.

Martxoaren 30era arte bisitagai da 'Ateak, leihoak eta aldabak'

bai, nahi dut!

GEHIGARRIA >

anboto | 2010eko martxoaren 12a, barikua



deser studio

GONZALO MANCISIDOR



ANDRA MARI KALEA, 9 • 48200 DURANGO • Tel. 94 681 06 28 - Fax 94 603 05 50 • info@joyeriamancisidor

Aparteko egun baten kontakizuna osatzeko argazkiak eskuartean

Argazkigintzari zein diseinuari dagokionez ere, sormenari eskaintzen zaion denbora dela ezkontzako argazki bilduma desberdin eta bakar bihurtzen duena azpimarratzen dute Durangoko Deser Studio-ko arduradunek. Sormena garatzeko, denbora ei da giltza. Argazkia ona izateko, ezkongaiak gustura egotea eta natural agertzea bilatzen dute.

Argazki politik egitea bakarrik ez, Deser argazkigintza estudioko arduradunak azaldu digunez, kultura bisuala geroago eta zabalduago dagoenean "argazkiak ondo konposatuta egotea, argazki onak egitea" bilatzen dute argazki album batean ezkongaiak. "Ezkontza bat bizitzan behingoa delako, ezkongaiak zerbait ikusgarria gura izaten dute"; zerbait desberdina, baina "espontanea eta naturala" aldi berean.

Argazkilari on batek inprobisatzen jakin behar duela diosku Sergiok, baina egin gura duena aurrez pentsatua eduki behar duela; senak gidatzen du argazkilaria, baina lana behar den legez egiteko ondo ezagutu behar du bezeroa. Argazkilariak eta ezkongaiak elkar ezagutzeko hitzorduak egiten dituzte aurrez.

"Ezkongaiak argazkietakoekin identifikatu daitezela da helburu nagusia"

"Euren ezkontzako argazki bilduma pertsonal eta bakarra gura dute bezeroek"

"Zabaldu egiozu zure gogoa argazkilaritza egiteko beste modu bati" da Deser taldearen lemetako bat, eta bertan kontatu digutenez, ezkontza albuma egiteko euren gogoa jotzen dutenak irekiak izaten dira gehienetan: arruntasunetik ateratzea bilatzen dute. Euren ezkontzako argazki bilduma pertsonala eta bakarra izatea. Eta hori da, Deser estudio-ko Sergiok dioenez, sekretua.

Jasoko duten argazki albumagaz identifikatuta eta gustura sentitu daitezela ezkongaiak: horixe ei dute helburu nagusi. Ez argazkilaria gustura egotea. "Ezkongaiak azkeneko muturren eramanen saiatzen" dela diosku Sergiok, "baina muga beti ezkongaiak gustura egotea" dela: horrek esan gura duena da, bere berbetan, "bikote batzuk hondartzan biluzik ipini ahalko ditudala, eta beste batzuk Gazteluga-

"Bezero guztiekin modu berean lan egiterik ez dago; egokitu beharra dago"

txera eramango ditut argazki oso erromantikoak egitera". Bakoitza zer egiteko prest dagoen jakitea da beharrezkoa, baina "argazkilariak bilatzen duena begiradak indarra izan dezan lortzea da". Helburua beti da ezkongaiak gustura egotea, eta euren arteko begiradek zerbait adieraztea; albumak eurentzako magia izatea. "Ez dago ezkongai guztiekin berdin lan egiterik; moldatu beharra duzu".

Ezkontza bat argazkilariarentzat istorio bat dela esaten du Sergiok, ikusten duena kontatzea dela argazkilariak egiten duena. Ezkontza bakoitzaren berezitasun eta xehetasunak biltzea.

Ezkontzen direnentzat, gauza larregi dira egun horietakoak, denaren jabe izan ahal izateko. "Ohartu ere ez dira egiten zerbait gauzatzat, eta horixe da, hain zuzen ere, albumaren funtzioa: bertara jo eta eguna izan denaren marrazki bat topatzea". Argazkiak ikusten dituztenean jabetzen ei dira askotan egun horretako xehetasun askogaz.

Ezkontza egunean beti bi argazkilari joaten dira Deser-etik, "eguna hainbat ikuspuntutatik gura dugulako harrapatu". Bestalde, lan bakoitzari ahalik eta denbora gehien eskaini ahal izatea, eta, kasua bada, argi konkretu baten zain orduak eman ahal izatea dira, Sergiok dioenez, emaitza berezi egiten duten gakoak. "Denbora izaten da giltza".

Argazkiak eta diseinua sormenez landu ahal izateko, denbora da gakoa

Album bat egiteko sei-zazpi lagun inguruko taldeak egiten du lan; Deser estudioko arduradunak dioskunez, egun bat zein zazpi ere eman daitezke lan berdina egiten, "posproduzioan egiten duzun denboraren" arabera; argazkiei legez, bildumaren diseinuari ere behar beste denbora eskaintzea dute errezeta.






ZUEN EZKONTZA JASO NAHI DUGU



GERTATUTAKOAK
KONTATU



deser
studio


www.deser.es

Jose Antonio Aguirre 8 bajo
48200 durango
94 655 08 32
info@deser.es

HARRITU EGIN
NAHI ZAITUGU



AUSARTUKO ZARA?



Zelan orraztu norbere estiloari eutsiz, baina ukitu erromantikoagaz

Apaingarriak orrazkerari ukitu pertsonal bat ematen diote, eta orrazkera osatu dezake. Estilo bakoitzerako apaingarri egoki bat aurki daiteke, aukera zabalda dago-eta, gainera hainbat eratara erabil daitezke. Lorak apaingarri moduan eramatea klasikoa da, baina modan egoten jarraitzen du.

Ezkontzarako orrazkera egokia aukeratzeko orduan, kontutan izan behar da zer estilotako soinekoa eramaten den, aurpegiaren forma eta, batez ere, garrantzitsua da orrazkeragaz eroso sentitzea eta identifikatzea.

Aurten berriena ukitu erromantikoa eta orrazkeretan trenzak erabiltzea da; hainbat eratan orraztuak izan daitezke: alde batera, handiak, txikiak...

Ilea solte ala bilduta?

Emaztegaiaren galdera ohikoa izaten da: ilea solte ala bilduta? Hoberena da norberak daukan estiloa jarraitzea. Ezkontzarako looka aldatuz gero mozorrotuta ikusteko arriskua dago-eta. Beraz, beti adatsa sol-

Orrazkeragaz eroso sentitzea eta identifikatzea garrantzitsua da.

tea erabiltzeko ohitura dutenek, kontrolatutako ondak eta alde batera orratuztako kopeta-ilea eramanez. Hala ere, egun berezia izanik, beharbada estiloa aldatzea gura izan daiteke. Aukera ugari dago. Melena era askotara eramanez daiteke: lisoa, izurtsua, ausarta... Guztiek estilo oso naturala eskaintzen dute. Ilea erdi bildua ere oso eramangarria da, eta aurpegi-forma guztietan ondo

ematen du. Baina, egokiena ile kizkurra dutenentzat izan daiteke. Mototsak oso modan daude, era askotakoak; altuak, baxuak, printzesarena edo italiarrak... Motots italiarrak buruaren goialdean orrazten direnak dira, aurpegi oso borobila eta luzanga dutenentzat ez da gomendagarria. Ilea luzapenekin egindako bolumen handiko orrazkerak ere apaitzekoak dira.

Orrazkeretan trenzak erabiltzea modan dago. Hainbat eratakoak erabili daitezke.

Ile laburra

Ile labur eta lisua eramanez bada, koloreak garrantzia hartzen du; beraz, koloreagaz jolastu eta erreflexu batzuk emanez gero bolumena eta mugimendua lortuko da. Apaingarriek ere garrantzia berezia hartzen dute, orrazkerari ukitu berezia emango diote-eta. Ilea laburra belarritako luzeekin eramanez aproposa izan daiteke.

Apaingarriak

Ile laburra zein luzea eramanez, apaingarriek orrazkerari ukitu pertsonala ematen diote, eta orrazkera osatu dezake. Era askotako apaingarriak daude; tiarek arrakasta handia dute, eta loreak ilean apaingarriztatu eramanez klasiko bat bada ere modan jarraitzen du. Kapelak ere geroago eta gehiago erabiltzen dira.

Makillaje naturala, leuna eta iraunkorra da ezkontzarako aukeratzen dena



Orrazkera eta makillajea soinekoaren osagarri direla eta aldaketarako ezkontza eguna ez dela aproposena kontuan izan behar dira.

Makillajerako orduan kontutan hartu behar da ezkontza zer orduan izango den, zer soineko eramango den, zein den loreen kolorea, orrazkeraren estiloa eta ilearen eta begien kolorea. Baita emaztegaiaren pertsonalitatea ere, besteak beste.

Makillajea sinplea baina elegantea da ezkontzetarako normalean erabiltzen dena; makillaje leuna eta fina. Estilo erromantikoa da gehien aukeratzen dutena. Elegantzia ematen duen

makillaje distiratsu baina naturala dago modan. Ezkontza gauzez bada, makillaje indartsuagoa eta sentualago eramanez joera dago.

Makillajearen oinarria aukeratzeko asko irau-

Makillaje dotorea, distiratsua eta naturala dago aurten modan

teko eta argazkien flashak jasotzeko egokia dena aukeratu behar da. Betileentzako maskarak uragaz joaten ez dena izan behar du, egun

berezia izanik askok hunkiturik negar egiten dute-eta. Kolorete arrosa, melokotoi kolorekoa edo marroiak dira hobeto ematen dutenak.

Emaztegaiak eroso egoteko garrantzitsua da makillajea sinplea izatea, eta ez oso sutua.



Julen
Uribe
Argazkilaria

Berrizko estudioa:
Zengolitebengoa 4 behea
telf: 946 827 638

Mobila:
608 875 486

Durangoko estudioa:
Landako 4
telf: 944 657 362

www.argazkijulen.com

C
A

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epala- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- MANIKURA • PEDIKURA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Cristina Agirre
APAINDEGIA

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Nondik datorkizu loreekiko afizioa?

Gurea beti izan da lore askoko baserria. Gogoratzen dut zelan, bost bat urte gaz eta eskolatik bueltan, amak lorak busteko eskatzen zidan. Nik gura nuen bakarria jolastea izaten zen, baina lau neba-arreben artean egiten genuen. Behin larrosa adarrak sartzan hasi nintzen, eta hartuko zuten ez zuten, denak etorri ziren gorantz. Gaur egun mila bat larrosa landara dauzkut.

Noiz edo noiz afizio moduan ezkontzetarako sortak prestatu izan dituzu, ezta?

Bai, lagunentzako-eta egin izan ditut. Orain 20 bat urte auzuneko andra batek lore mundua gehiago landu beharko nukeela esan zidan. Erabaki gaitza izan zen, nire gorputzeko atal bat kenduko zidatela uste izan nuelako. Baina orain zapaturu Durangoko azokara joaten gara ni, nire ahizpa edo koinata, loreak saltzen.

Jendeak zer lore mota erosten du gehien?

Komunikabideek zeresan handia daukate; telebistetako platoetan zer ikusi, huraxe gura izaten dugu. Dekorazio aldizkarietan eta prentsa arrosan agertzen denak ere eragin handia dauka. Prentsa arrosako ezkontzei asko erreparatzen die jendeak.

Eliza bat lorez atontzeko, zer kolore gomendatuko zenuke?

Zuria, duda barik. Kolore batzuk desagertu moduan egiten dira, eta zuria ez, zuria hazi egiten da. Tamaina berdinean bolumen handiago hartzen du.

“
Elizan lore zuriek bolumena hartzen dute; hazi egiten dira”

“
Plastikozko gero eta lore hobekak daude, baina imitazioak dira”

Koloreaz gainera, lore bakoitza diferentzia da adierazi dezakeen esanahiaigatik ere...

Bai, baina baten batek gomendioa eskatuko bali, loreak osagarri bat direla esango nioke. Ezkontzetan loreen oinarria soinekoa da. Gainera, nire ustez, lar ere motza da. Ez gutxiegi ez gehiegi, neurria hartu behar litzaioke.

Zuk asko estimatzen dituzu lore guztiak, baina hiru lore mota bereizteko eskatuko banazu, zeintzuk dira zure kuttunenak?

Larrosa, betidaniko lorea delako; euren kolorea, forma, tamaina ezberdinak, usaina... mailarik handieneko lorea da. Tulipana ere lore berezia da, beti argia dagoen alderantz tolestean delako; ilun

“Leihoak zabaldu eta loranda dauden larrosen paisaia bat ikusteak eguna alaitzen du”

Ezkontza bateko elizkizunean senargaiak eta emaztegaiak eurenganatu ohi dute arreta osoa, baina inguruari erreparatzen dionik ere egoten da; beraz, eliza lore-sorta dotoreekin atonduta badago, askoz hobeto. Izaskun Lejarazu iurretarrari (Gaztanatza auzoa) betidanik gustatu izan zaizkio loreak. Ezkontzetarako gomendioak eskatu dizkiogu eta bere afizioari buruz ere jardun dugu. Lorek eguna alaitzeko ahalmena dutela dio.



dagoenean itxi egiten da eta argia dagoenean zabaldu; benetan berezitasun bitxia da. Azkenik, anemona bereiztuko dut, oraintxe sasoi betean gaudelako; lore txikiagoagaz baina tulipanaren antzekoak dira, eta zabaldu eta itxi egiten dira. Koloretsuak ere badira.

Lore exotikorik badaukazu?

Sasoi batean, orkideak ikusi ohi nituen aldizkarietan, eta uste nuen oso gaitza izango zela eurak lortzea eta haztea; batez ere, hemen dugun klimatologiagatik. Denboragaz konturatu naiz uste baino errazago lortzen den lorea dela; nire etxeko leiho bat orkideekin beteta daukat.

Loreek sarritan jendearen animoa pizteko ahalmena dute.

Bai, ados nago. Erraboietatik zelan sortzen diren ikusten duzu, hazten ikusten dituzu, forma doto-

re horiek hartzen... Umore txarraz zauden egun batean eurei begiratu eta alaitu egiten zaituzte. Leihoak zabaldu eta loranda dauden larrosen paisaia batek bihotza poztzen du.

Plastikozko loreak erabiliko zenituzke eliza bat edo etxea atontzeko?

Plastikozkoak baino, hobe bat ere ez! Plagio hutsa dira, nire ustez. Geroago eta imitazio hobekak daudela onartzen dut, baina beti izango dira imitazioak; ez dira benetakoetara hurbilduko.

Ezkontzeko eskaera egiteko eta maitasuna deklaratzeko zer lore gomendatuko zenuke?

Betidanik esan da larrosa gorria dela egokiena, baina niri gutxien gustatzen zaidana da, gehien ikusitakoa delako. Niri larrosa horia gehiago gustatzen zait.

Asteburuan ezkonduko banintz, eliza zer lore sorta motagaz apaintzeko gomendatuko zenidake?

Bakoitzak bere gustuak dauka; nik beste era bateko pare bat gomendio emango dizkizut. Ez fidatu Interneteko argazkiez; ane-

monak eta liliumak tamaina ezberdina daukate, baina Interneten sarritan tamaina berekoak ematen dute. Kontuan hartzeko beste alderdi bat: lore denek ez dute ezkontza egun osorako balio; ura behar dute. Lore erramu batzuek argazkirako bakarrik balio dute.

Egia da loreek zaintza handia eskatzen dutela?

Bai, baina jendeak uste duena baino txikiagoa. Zuk uste duzuna sarritan ez baita loreek behar dutena! Ez da ona beti gainean egotea, espazioa ere behar dute.



“Ezkontzetarako jatordu informala goak prestatzea eskatzen digute”

Ezkontzetako janaria prestatzen hamasei urte daramatza Iñaki Uribe Saltsan-eko sukaldariak. Ohiko menuak alde batera utzi barik, lunch formatuko jatorduak prestatzen dituztela azaldu digu, karpa batean edo sozietatean. Sukalde txiki bat eskura badauka, Iñakik jakirik gozoenak bere puntuan prestatuko ditu.



Kanape formatua: mokadu txikiz betetako jatordua

Ezkontzaren ondoren indarrak berritzeko sasoi izaten da. Jatorduan zerbitzatuko dena aukeratzeko, gonbidatuen gustuak kontuan hartu beharra dago. Luncha aukeratu gero, kanape mota asko eskaintzeak gonbidatu guztien gustua asetzera errazten du. Mokadu hotzetan, tradizional eta sofisticatuagoak tartekatu daitezke. Beroen artean, fritoak izaten dira nagusi. Bigarren platera bertan momentuan txingarretan erre daitezke. Bildotsa, saiheksia, brotxetak, arraina... Inork ezin du gosez irten.

Postreei dagokienez, bikote gehienek ohiko tarta jartzen dute. Pastela zatitzeko unea berezia izaten da bikoteentzako, baita gainean jartzen den opariaren banaketa ere.



Ezkontza motak aldatu egin dira?
Gaur egun ezkontza asko beste modu batera egiten dituzte. Informalagoak dira. Lunch estilok hainbat ezkontza zerbitzen ditugu.

Egun horretako lunch berezia izango da.

Askotariko kanapeak jartzeaz gainera, janari beroa ere jartzen dugu; kalamareak edo fritoak, esate baterako. Pertsona bat urdaiazpikoa moztan egoten da, beste bat ardo fina botatzen, gazta mahai handi bat, kopak...

Ezkontza bakoitzerako menua aukeratzeko da?

Menuan aukera zabala dute. Batzuetan bildotsak brasan eginda prestatzen ditugu, saiheksia eta horrelakoak ere bai; bigarren platera, batez ere.

“Askotariko kanapeak, janari beroa, kopak... denetarik zerbitzatzen dugu”

Jatordu horiek non antolatzen dituzue?

Bikote askok karpa bat jartzen dute, Garain, adibidez. Edozer gauza alokatu daiteke. Sozietateetan ere hainbatetan egiten ditugu.

Sukaldea behar izaten duzue?

Sukalde bat inguruan badugu, edozer gauza prestatu dezakegu. Dena eginda eraman behar bada, gauza beroak eramatea gaitzagoa izaten da. Lekuren batean sukalde txiki bat frijigailuekin

eta bestelako materialagaz egokitu dezakegu.

Gainerakoekin alderatuta berran berezia zen ezkontzaren bat zerbitzatuko zenuten...

Ezkontza bat Lagako baserri batean egin genuen. Sukaldea garage txiki batean egokitu genuen eta 200 gonbidatu baino gehiagori jaten eman genien. Azpiegitura handia behar da bazkari handiak emateko.

Ezkontza osteko afariak ere egiten dituzue.

Familia artean bazkaria eta lagunekin afaria kanape estilok antolatzen du bikote askok. Nahiko janari tradizionala izaten da.

Bikoteek zer eskatzen dute?

Batez ere, lau edo bost sarrera aukeratzeko dituzte, okela eta arraina, eta postrea. Gonbidatu gutxi direnean eskatzen dituzte gauza berezienak.

Ezkontza jakinen bat badaukazu akorduan?

Bi pertsona pernila moztan, kanape bereziak, janari beroa ere bai, hainbat motatako krocketak, gazta mota askotako mahai bat ondo jarrita... Ezkontza polita izan zen.

Zein ardo mota aukeratzeko dute gehien?

Jendea nahiko tradizionala da. Ardo zuria eta Errioxakoa.

“Familiako bazkaria eta lagunekin luncha antolatzen du askok”

Urdaiazpikoa zatitu eta platerera zuzenean

Pernila zatitzeak bere teknika dauka. Ezkontza egunean, goi mailako jaki hau momentuan zatitu eta gonbidatuek berehala jateko aukera originala izan daiteke. Profesional batek zatituta, bere zapora osoa mantentzen duen jakia dastatu daiteke.



IK Iurreta kopistegia

OPARITXOAK
GONBIDAPENAK
- kalogokoak
- pertsonalizatuak

Bidebarrieta 1 - 48215 IURRETA
94 681 10 70 - mac@iurretakopi.com

Klasikoa? Umoretsua? Estilo guztietako gonbidapenak

Katalogoetan galtzeko beste aukera dago gonbidapenen merkatuan. Dotoreak, xumeak, koloretsuak, umoretsuak... Gura izanez gero, norberak diseinatzeko materiala ere badago esku-eskura. Ezkontzako beste detaile txiki guztien moduan, hau ere gustu kontua izango da.

Gustu guztietarako gonbidapen ereduak daude gaur egun. Kopia-dendetan katalogo ugari aurkitu genitzake, eta Interneten ere orrialde askotan daude ereduak. Letra etzane-kin idatzitako gonbidapen tradizionalak ez dira falta, baina geroago eta gehiago dira letra arruntagoekin, marrazkiekin eta koloreekin jokatzeko gonbidapenak.

Loren marrazkiak izaten dira ohikoena gonbidapenetan; horra hor aukera bat. Bes-telako marrazkiak, baina, gero-



Eredu asko dago, beraz, eta baita eredu horietatik kanpora norberak bere eskuz gonbidapenak egiteko aukera ere. Izan ere, geroago eta paper mota gehiago dago: koloree-

Katalogoetan gonbidapen serioak asko dira; umerotsuak geroago eta gehiago

takoak, trama berezietakoak... eta tinta bereziko errotagailu eta boligrafoak ere asko daude. Irudimen apur batez, gonbidapen txukunak egiteko



ago eta gehiago erabiltzen dituzte ezkontideek, eta katalogoetan denetarik topatu genetzake. Bihotzak eta ezkontideen marrazkiak dira ohikoena. Bikotekideen marrazkiak, gainera, era guztietako-

Norberak ere egin ditzake gonbidapenak; horretarako baliabide asko dago merkatuan

ak dira: maiteminduta xamur ageri daitezke, baina egoera barregarrian ere bai, parranda giroan edo, adibidez, bizikleta baten gainean ezkontzara helteko ahaleginak egiten.



moduan egon daiteke bikotea. Horretarako, artazi berezi batzuk ere badaude, zuzen barik forma desberdinak margoztuta ebakitzen dutenak.

Aukerak, milaka, beraz. Katalogoak hor daude, eta ahalik eta gonbidapen pertsonalenak egiteko bideak ere bai.

Kolore eta trama askotako paperak daude, eta asko erabiltzen dira



Eskulan txikiak, boligrafoak, bonboiak... puruak ere oparien tarteetan egoten dira

Ezkontzetako oparirik tradizionalenak gozokiak eta puruak izaten dira, baina gonbidetuei detailetxoak ematerako orduan ere, denetik dago. Tamainaz gauza txikiak izaten dira normalean opariok, eta katalogo asko dago kontu honetan. Eskuz zer edo zer egiteko aukera ere hor egongo da.

Abanikoak, likore botila txikiak, kandelak, puruak, gozokiak, bikote bat irudikatzen duten figuratxoak... Gonbidatuentzako opariak era guztietakoak izan daitezke.

Gauza xumeak izaten dira opariok. Askotan bikoteek gozokiak banatzen dituzte. Gozoki tradizionalenak azukre-almendrak izaten dira, eta kolore guztietakoak daude. Bonboi sorta banatzeko ohitura ere badago, dotore apaingutako kaxa baten barruan. Gozokiek pakete bitxiak izaten dituzte, eta badaude, adibidez, argazkiak eusteko euskarriarekin lotuta datozen poltsak.

Boligrafoak eta arkatz bereziak ere opari egokiak izan daitezke. Hauetan ezkontideen izenak grabatzeko aukera ere egoten da sarritan. Zurezko arkatz

Era guztietako gozoki eta boligrafoak daude merkatuan. Figuratxo eta guztikoak

Tamaina txikiko oparien artean, ardo edo likore botila txikiak daude

bereziki hasi eta zilar koloreko boligrafoetaraino, aukeratzeko eredu asko eta asko daude katalogoetan.

Opari txikiak dira gehienetan ezkontzetan banatzen direnak, ohikoak baino txikiagoak. Katalogoetan, adibidez, 18,5 cl-ko ardo edo likore botilak daude, eta baita birziklatutako papez egindako koaderno txikiak ere, arkatz txiki eta guztikoak.

Argazkiak jartzeko euskarriak, giltzatak, kandelak, liburu orriak markatzekoak... Eskulan txikiak ere oparien tarteetan egon daitezke. Puro-zaleentzako zigarro puruak banatzeko ohitura ere hor dago. Detaile txiki hori aukeratzeko, katalogoetan begiratu edo irudimena martxan jartzea, horra hor aukerak.



Zure egun berezi horretako momentu onak argazkietan irudikatzea da gure eginkizuna. profesionaltasuna cinarri.

ZURI BELTZ

FOTOGRAFIA

Fray Juan de Zumarraga 5 • 48100 Durango • Tel.: 94 681 67 94

Ezkontzai bakoitzak bere neurrira egindako jantzia aukeratzeko ordua

Ezkontza antolatzerakoan hartu behar den erabaki garrantzitsuenetakoa jantzia aukeratzeko da. Eskaintza ugariak, batzuetan, lana erraztu barik zaildu baino ez du egiten. Norberak egun horretan gustura jantziko duen arropa topatzea da jomuga. Jantziak probatzen hasteko ordua da.



Ezkontza egun berezia denez, arroparena ilusioz egin beharreko aukeraketa da. Emozioz betetako egun horretako elementu garrantzitsua da.

Ezkontza egunerako jantziak topatzeak badu bere zailtasuna. Diseinatzaile handienetatik dena apalenera joan aurretik, zer gura dugun argi izan behar dugu.

Emakumeen kasuan, soinekoak katalogoetan ikustea ez da nahikoa. Jantzerakoan zelan gelditzen den jakitea da garrantzitsua. Dendara joan eta behar adina jantzi probatzea da gakoa, neurrira egindako hori topatu arte.

Ezkontza-beloak: aukera zabala duzu eskura

Buruan ezkontza-beloak eramane gura dituenak joera guztiak eskura ditu. Hala ere, jantziak berak belo mota bat edo beste eskatzen du. Enkajedun beloak brotzeagaz lotuta eramane daitezke. Diadema batez ere bai. Buruan batutako beloak dira, baina, moda-modan jarri direnak.



Dendara joan eta behar adina jantzi probatzea da onena, neurrikoa topatu arte

Modako joeretan inspiratu zaitez, baina zure estilokoa den jantzia topatu

ezkongaiak aukeratzen dituzten jantziak klasikotasuna dute ardatz. Beraz, modako joeretan inspiratutako soinekoaren bilaketa dago abian jarri beharra.

Ezkontzai bakoitzarentzat traje bat dago. Soineko hori topatzeko estiloa definitu beharra dago. Minimalista, modernoa, printzesa estilokoa, erromantikoa edo bukolikoa. Bakoitzak bere gustuen arabera aukeratu dezake. Arropa hori zer materiallez osatu erabakitzea da hurrengo pausoa. Josketa oso landua dutenak, harribitxietatik hasita bordatutako harietarano, aukera zabala dago. Arropa sinpleena ondo aukeratzeko gerriko edo osagarri batek bete dezake.

Gizonezkoen jantziak

Klasikoena ezkongaiak txakea eramatea da. Tradizioaren arabera lebita

beltza faldoiekin eramatea, marra-dun prakak eta txaleko grisa. Ezkongaiaren eta testiguen jantzia da. Bertsio grisa ere bada, baina ezkongaiak bakarrik eramane dezake, goizeko ezkontzetan. Beste aukera batzuk ere badaude. Trajea txalekoarekin

Ezkontza egunerako gizonezkoen arropa klasikoena txakea da

eramatean, arropa hori beste momentu baterako aprobetxatu daiteke.

Gizonezkoek txaleko eta korbataren koloreak aukeratzeko hartu beharreko erabakietako bat. Batzuek jantzi osorako beltza aukeratzeko dute. Beti ere, emaztegiaren soinekoaren koloreak ezagutzea komeni da bi jantzien koloreak estilo berekoak izan daitezen.

Gustuko duzun eraztun pareak aukeratu duzu?

Eraztunek paper garrantzitsua betetzen dute ezkontzan, beraz, aukeraketa egiteko tarte hartu beharra dago. Gauregun, estilo eta material askotako eraztunak aurkitu daitezke. Klasi-koen artean urre gorrizko eraztunak daude. Urre zuridunak ere geroago eta harrera hobea dute. Urre larrosa da orain

eraztunen artean dugun nobedade nagusia. Urre mota biren arteko konbinazioak ere baditugu merkatuan.

Eraztunak aukeratzekoan brillantez hornitutakoak nabarmentzen dira. Diamantea da harribitxien artean gehien erabiltzen dena. Egundorretan bereziki distira egin behar du.



GONZALO MANCISIDOR



MUSIKA > EMANALDIA

Badihardutela kanta berriak sortzen, eta euren guraria disko berria aurren kaleratzea dela aurreratu digute Bide Ertzean taldeko tolosarrek. “Bagabiltza kanta berriekin jolasean”, dio Imanol Ubedak. Disko berriko hainbat gauza dagoeneko oso aurreratuak omen dituzte.

Gaurko Arriolako kontzertuaren oinarria, baina, azaroan plazaratu zuten *Leidor Sessions* izeneko izango da: taldearen lehenengo hamar urteak laburbiltzen dituen zuzeneko diskoa. Lan hura argitaratu eta berehala ekin zioten birari, eta biraren bigarren zatia abiapuntua izango dute martxoaren 18an, Elorrioko Arriolan. Kanta zaharrak garai berrira moldatu eta abesti batzuei aire berri bat eman zieten *Leidor Sessions* diskoa prestatzerakoan.

Arriolan orain urte batzuk eskaini zuten kontzertua “ondo gogoan” daukatela kontatu digu Imanolek. “Deabruak Teilatueta taldearekin lagun handiak egin genituen Elorrian, eta eurek ekarri gintuzten ondoren Bide Ertzean moduan Arriolara”, gogoratu du. Martxoko bira Arriola “areto zoragarrian” hastea “pizgarri han-

Disko berriari jasoko dituen kantak Arriolan eskainiko ditu Bide Ertzeanek

Gaur gaueko 22:00etan Elorrioko Arriolan kontzertua eskainiko du Bide Ertzean talde tolosarrak

Martxoko bira Arriolan hasia “pizgarri handia da”, dio Imanol Ubedak

Emanaldiaren zati bat akustikoa izango dela aurreratu digute

Laukote moduan jardungo du Bide Ertzeanek Arriolan

dia” dela Bide Ertzeanentzat dio Imanol Ubedak.

Taldearen hamargarren urteurrenean, 2008an, hasi ziren 2009ko urtarrilaren 16an zuzenean egin zuten grabazioa prestatzen: Tolosako Leidor aretoan grabatu zuten *Leidor Sessions*. Ordura arteko sei diskoei errepaso egin zieten kontzertu hartan, eta kanta zaharren moldaketa berriak erakutsi zituzten. Melodia ederrak eta letra oso esanguratsuak uztartzen dituzten *Ez dut atzera egingo*, *Hiri emanen dizkinat* edo *Graffiti* kanta berria daude besteak beste, diskoan.

Leidor Sessions zuzeneko diskoaren erreperitorioan oinarrituko da martxoaren 12an Arriolan eskainiko duten kontzertua. Joserra Senperena piano jotzailea ez da kontzertuan izango, Fito&Fiti-paldisekin dabileko biran, eta

laukoterako egokituko dituzte kantak: Imanol eta Joni Ubeda anaiak, Estatu Batuetan bizi den Fran Iturbe eta Karlos Aranzegik jardungo dute Elorrioko kontzertuan. “Gure hasierako formatorak itzuliko gara martxoko kontzertu hauetan”, azaldu digute.

“Abesti berriak entzuleekin konpartitzeko gogotsu gaude”

Azaroan izan zituzten kontzertuen ondoren berriro AEBetara bueltatu zen Iturbe gitarrista, eta hirukote akustikoko jardun dute azkenaldian Ubeda anaiak, Karlos Aranzegi bateria-jotzaileak. Donostiako Victoria Eugenia ere horrela aritu ziren Qui-

que Gonzalezekin batera otsailaren 20ko egin zuten kontzertuan.

Emanaldiaren zati bat akustikoa izango dela eta aurren kaleratzeko asmoa duten diskoan izango diren kanta berriak ere eskainiko dituztela aurreratu digute: abesti berriak entzuleekin konpartitzeko gogotsu daude taldekideak. “Eta bitxia bada ere”, dio Imanol Ubedak, “zuzeneko diskotik aparte utzitako kantaren bat ere berreskuratuko dugu Arriolan gaur”.

Hamabi urteko ibilbide luze eta oparoan, pop akustikoaren doinuetatik rock gordinago batera ailegatu da Bide Ertzean. Rock eta pop doinuen arteko joan-etorri hori da Arriolan gaur proposatuko dutena; baita lehenengo diskotik azkenekoraino ere bereziki zaindu dituzten letren uni-berbersora bidaiatzea ere. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 12 22:00etan
BIZARDUNAK + LES FABULOSERS
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

OTSAILAK 13 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
ERROMERIA. Sarrera doan.

OTSAILAK 14 17:30ean
MUSIKA TRESNEN FABRIKA
SOINTEK antzerki taldea
UMEENTZAKO ANTZERKIA. Sarrera: 3 euro

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LA MUERTE Y LA DONCELLA
de Ariel Dorfman

www.lamuerteyladoncella.com

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Martxoak 14 • 19:00etan

11-91 601 07 76 Artekale, 14 Durango

HITZ

Liburudenda

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 13an, 20:00etan

DE PELÍCULA

Bi pailazok zinea erabiltzen dute terapia moduan. Clown teknikagaz Puxika eta Katuska doktoreak gogoaldarte bakoitzerako sendabide zinematografikoa daukate. Mary Poppins, Grease edo Catwoman lako pertsonaiez baliatuz, desira edo frustrazioa adierazten dute. Umorean bitartez autoestimua edo rolak jorratzen dituzte taula gainean.

ANTZERKIA

ABADINO

>> 'De película' (Oihulari clown), martxoaren 13an, 20:00etan, Errota Kultur etxean.

BERRIZ

>> 'Hala bazan' umeentzako antzerkia, Berrizko Kultur Etxean, martxoaren 12an, 17:30ean.

DURANGO

>> 'La muerte y la doncella' antzerkia, martxoaren 14an, 19:00etan San Agustinen.

>> 'Musika tresnen fabrika' umeentzako antzezlan, Sointek taldearen eskutik, martxoaren 14an, 17:30ean, Plateruena Kafe antzokian.



ELORRIO

>> 'La muerte y la doncella' antzerkia, martxoaren 12an, 22:00etan Arriolan.



ERMUA

>> 'Mirando a Youkali' Alba Sarraute-ren eskutik, hilaren 12an, Lobiano kulturgunean, 22:15ean.

>> Haurrentzako antzerkia: 'Piedra a

piedra' martxoaren 13an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.



BESTEAK

DURANGO

>> III. Durango Ardo Saltsan feria martxoaren 13an, 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, Landako Gunean.

>> David de Bustos (Magia+ Globoflexia) martxoaren 12an, Café Misarven, 23:30ean.

IURRETA

>> Bizikletaz ibilbidea: Txirriindulari elkarteak ibilbidea antolatatu du martxoaren 13an eta 14an 09:30ean lurretan.

ZORNOTZA

>> Gauero gazteentzako gaueko aisialdi programa: Katsumi Komagata, martxoaren 12an eta 13an, 20:00etatik 23:00etara Zelaieta zentroan. 10-15 urte bitartekoentzat.

>> GR-98 Urdaibai biosfera erreserbari itzulua. Martxoaren 13an, Munitibar-Ereño. Izen-ematea eta informazioa Zelaieta Zentroan.

DANTZA

DURANGO

>> Dantzaldi herrikoia Durangoko Plateruena kafe antzokian, martxoaren 13an, 19:00etan.

DEIAK

DURANGO

>> Odola emoteko aukera, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharreen. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

ABADINO

>> Matriuska errusiarrak dira Abadiñoako Martxoak 8ko lehiaketa irabazi duen kartelaren ardatza. Lehiaketara aurkeztu ziren 14 lanak ikusgai egongo dira kultur etxean, martxoaren 5etik 18ra bitartean.

BERRIZ

>> Ateak, leihoak eta aldabak, argazki erakusketak Kultur Etxean, martxoaren 15etik 30era.



>> "Bizitza minatuak" Gervasio Sánchez 2009ko Argazki Sari Nazionalaren argazki erakusketak, otsailaren 19tik martxoaren 12ra, Kultur Etxean.

DURANGO

>> "La Biblia: Historia de un pueblo que busca su libertad" erakusketak Aste Santura arte egongo da ikusgai Uribarriko Andra Maria basilikan. Asteleheneetik larunbatera, goizez 09:30etik 13:00etara, arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. Domeketan goizez bakarrik.

ERMUA

>> Margoa erakusketak, martxoaren 16tik 29ra, Lobiano kulturgunean, Zelaieta Zentroan.

>> Emakumeen aurpegiak erakusketak, martxoaren 1etik 14ra, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

>> 'Mal aire' argazki erakusketak martxoaren 16tik apirilaren 6ra.

>> Katsumi Komagata. Martxoaren 30era arte, Liburutegian.

>> Picassoren emakumeak mosaikoak. Martxoaren 15era arte, Liburutegian.



IKASTAROAK

BERRIZ

>> Ikastaroak igerilekuan, Gimnasioa eta Cyclinga. Izen emateko epea: martxoaren 2tik 22ra, Berrizburu kiroldegian, 10:00etatik 20:00etara. Zozketa eguna, martxoak 23an; emaitzak, martxoaren 24an.

DURANGO

Aste Santuko Barnetegia. Mintzarena eta azterketetako ahozkoak lantzeko barnetegia. HABA 1, 2 eta 3 lortzeko. Ikastaroa 1.maila (6. urratsa), 2.maila (9. urratsa) edota 3.a (12. urratsa) gaitututa dutenei zuzenduta. Foruan, Apirilaren 1etik 5era. Izen-ematea eta informazioa: AEK-ko edozein euskaltegitan, martxoaren 18ra arte.

>> Zaindu programaren baitan, Durangoko adinekoen udal egoitzan: Alzheimer gaixotasuna eta beste dementzia batzuk, mintegia martxoaren 17an. Ordu eta erdiko saioak dira. Ordua: 17:30-19:30.

>> Patinaje ikastaroa, zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

>> Euskal dantzen ikastaroa. Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

>> Adinekoentzako denetario ikastaroak: Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa. Izen-emateak Durangoko adinekoen udal egoitzan.

>> Tailerra: Eleberri Beltza. Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emoteko Liburutegira gerturatu.

MANARIA

>> Jendearean nola hitz egin ikasteko ikastaroa. Izen emateko azken eguna martxoaren 30ean izango da.



anboto, durangaldeko astekaria



Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali



ELORRIO

» Apirilaren 10etik ekainaren 19ra Elorrioko Udalak antolatuta dituen **dantza ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago**. Izen-emateak Iturri kultur etxean bertan egin behar dira martxoaren 19a baino lehenago. Ikastaroan karibeko dantzak izango dira ikasgai, eta ikastaro honen barruan salsa, bachata, 'rueda de salsa', merenge eta mambo dantzak. Ikastaroak zapatu goizean izango dira, 10:00etatik 12:00etara.

IPUINAK

DURANGO

» **Munduko ahotsak zikloaren barruan** Latinoamerikako ahozko tradizioa Marissa Amado kontalari perutarrek, martxoaren 18an, 20:00etan liburutegian.

IURRETA

» **Haurrentzako ipuin kontaketa**
Miriam Mendoza kontalariarekin, martxoaren 12an, 18:00etan Liburutegian.



MUSIKA

BERRIZ

» **Punk kontzertuak** Gaztetxean: **Manifa, Korte trapero eta Matarratas**, hilaren 13an 22:27an.

DURANGO

» **Bizardunak + Les Fabulosers** kontzertua, martxoaren 12an, Plateruenean, 22:00etan.



» **Arizona Baby + Clem Snide**, 'Second to none' Arizona Baby taldearen disko berria, martxoaren 18an, Plateruenean, 22:00etan.

ELORRIO

» **Bide Ertzean** taldearen kontzertua, martxoaren 18an, eguenean izango da, 22:30ean, Ateneoan.



» **Never Surrender eta Okasientes** taldeen kontzertuak Gaztetxean, martxoaren 12an, 23:00etan.

ERMUA

» **Kontzertua:** Zumaia eta Ermuko Alboka musika bandak martxoaren 12an, 20:30ean, Santiago elizan.

ZORNOTZA

» **La fanfare du Belgistan** (Jazz blues zirkuitua), martxoaren 18an, 20:30ean, Zornotza Aretoan.



Martxoaren 18an, 22:00etan

ARIZONA BABY + CLEM SNIDE + INHABITANTS

Arizona Baby psikodelikoak bezain folkiak dira. Bere estiloagatik, Arizonatik etorri zitekeen taldea, baina ez: Valladolidetik datoz. Rock primitibo eta gordina galbahe akustikotik pasatzen duen taldea, eta rock eszenako moldeak apurtu dituena. Molde musikalaz gainera, molde estetikoko ere apurtu dituzte, "irudimenetik eta kode eszeniko jakin batzuetatik abiatuta sortu dugun mundu txikia da, gure bizar, koadrodun alkandora eta Cow-boy kapeluekin", dio Javier Vielsak, taldeko abeslari eta gitarristak. Arizona Baby zuzenean entzuteko aukera, beraz, Plateruenean.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **'El libro de Eli'** martxoaren 18an, 20:30ean, Zugazan.



ERMUA

» **'Nadar'** filma ikusteko aukera egongo da, martxoaren 18an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano Kultur gunean.



ZINEMA

DURANGO

Zugaza
The road
Zuzendaria: John Hillcoat
barikua 12: 19:00
zapateria 13: 22:30
domeka 14: 22:30
astelehena 15: 22:00
martitzena 16: 20:00
Celda 211
Zuzendaria: Daniel Monzón
barikua 12: 22:00
zapateria 13: 19:30
domeka 14: 19:30
astelehena 15: 19:00



Umeendako zinema

Rompedientes

Zuzendaria: Michael Lembeck
zapateria 13: 17:00
domeka 14: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Amerrika
Zuzendaria: Cherien Dabis
zapateria 13: 22:30
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:00



Umeendako zinema

Rompedientes

Zuz.: Michael Lembeck
domeka 14: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Up in the air
Zuzendaria: Jason Reitman
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:00



Umeendako zinema

Igelak eta zapoak

Zuz.: Simone van Dusseldrop
domeka 14: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 12
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Matiena)
Zapateria, 13
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Balenciaga/ Unamunzaga/ Sagastizaba/ Campillo/ De Diego/ Etxebarria/ Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
Domeka, 14
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
Astelehena, 15
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
Martitzena, 16
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguaztena, 17
09:00-09:00
• De Diego (Inbaxurrondo 22 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Eguena, 18
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30
TXANPORTA
Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuegoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

3º 4º BARIKUA ☁
Prezipitazio apur bat egin dezake eta temperatura igo egingo da. Elur-kota 100-300 metro inguruan kokatuko da goizaldean. Eguerdi aldera ostareak zabalduko dira. Iparraldeko haizea ibiliko da.
7º ZAPATUA ☁
Eguraldia txarrera egingo du. Zerua oso hodeitsu egongo da eta prezipitazioa egingo du. Gauean atertzera joko du. Elur-kota 500 metro inguruan kokatuko da. Iparraldeko haize ahul-bizia ibiliko da.
8º DOMEKA ☁
16º ASTELEHENA ☀
22º MARTITZENA ☁



Alokairuaren bitartez, orain erabiltzen ez diren lurak balioetsiko dituzte

Prezioen Batzorde Teknikoak ezarriko du hileko prezioa, lurren espekulazioa galarazteko

Bizkaiko Foru Aldundiak Nekazaritza Lurren Funtsa sortu du

Nekazari gazteak sektorean sartzea eta nekazaritza jasangarria bultzatuko ditu, batik bat, Nekazaritza Lurretarako Bitartekaritza Bulegoak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak legealdi honetarako helburu nagusietako bat lortu du: Nekazaritza Lurretarako Bitartekaritza Bulegoa sortzea. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa sortuta, lurra eman ahal izango zaie lurra oinarri hartuta nekazaritza ustiatzietan jardun gura dutenei, dagoeneko badauden ustiatzietan edo sortu berrietan. Proiektuak ziurtasun juridikoa izan dezan, Bizkaiko Foru Aldundiak dekretu bidez onartu du, eta nekazal sindikatuen babesa du.

Helburu nagusiak

Nekazaritza Lurren Funtsak gazteak nekazaritza eta elikaduraren sektorean sartzea bultzatuko du, eta, aldi berean, lanbide onarpena eta emakumeak nekazaritza eta elikaduraren

sektorean berdintasunean aritzea. Beti ere, nekazaritza eredu jasangarri bat bultzatuz. Gainera, nekazaritza ustiatzietan iraupena bermatuko da landa guneko garapen ekonomikoaren oinarriko tresna legez, eta lurak bertan behera uzteko joera saihestuko litzateke, nekazaritza garapeneko politikak bultzatuz. Era berean, suteak, izurri eta gaixotasun fitosanitarioak eta alboko lurretarako kalteak saihestuko dira nekazaritzako ahalmena duten lurretan; Aldundiak lehen sektoreko pertsonei eskaini gura dituzten lurretan.

Lurak eskaintzea nekazaritzan lehiakortasuna hobetzeko neurria ere bada. Lehenetsuna nekazaritza eta elikadura sektore indartsu eta dinamikoa lortzea da, beti ere, ustiatzietan errealitatea kontutan izango

duena; familiako ustiatzietan, gehienbat bertan behera utzitako aldeetan eta mendiko nekazaritzako eremuetan kokatuak.

Lurren kudeaketa

Aldundiak 500 hektarea inguru Bitartekaritza Bulegoaren esku ipini ditu. Aldundiak bultzatuko du; nekazarien aurre-erretiroetatik datozen lur publikoen edo pribatuen borondatezko atxikipena, erosketak, trukeak, jabe pribatuen lagapen pribatuak eta herri titularitateko lurren kudeaketa. Hautaketa egiterakoan, nekazari gazteen lehenengo instalazioa izatea baloratuko da gehien. Prezioen Batzorde Teknikoak ezarriko du errendamenduen hileko prezioa, lurren espekulazioa galarazteko. Dirua Nekazaritza Funtsaren barruko lurak hobetzeko izango da.



500 hektarea inguru izango ditu Bitartekaritza Bulegoak

KIROLAK >



Nagusi adina gaztetxo batzen ditu Mugarrak

Duatloi denboraldia abiatu berri denean, Mugarra triatloi taldeak aurkezpen ofiziala egin du, oraintsu, Ibaizabal Ikastolan. Serafin Bereziartu "Txela"-k aipatu duenez, "Bizkaian lizentzia gehien dugun triatloi taldea gara"; 67 guztira. Kopuru horri iaz sortu zuten triatloi eskolako gaztetxoak gehitu behar zaizkio. Urtebeteaz zuzen eta 16 urte arteko ia 60 gaztetxo batu dira eskolara.

Zazpigarren denboraldia izango du aurtengoa Mugarra triatloi taldeak. Aurten ere duatloi bi antolatuko dituzte. Lehenengoa laster izango da; martxoaren 27an, Durangon, Euskadiko duatloi zirkuituaren barruan. Bigarrena San Fausto bezperan antolatuko dute, eta izaera herrikoia izango du, "durangarrak eta ingurukoak triatloira hurreratzeko asmoagaz antolatuko dugu".

Iaz sortutako triatloi eskola sendotzea eta ezagutzera ematea ere nahi dute. Gaur egun, 60 gaztetxo inguru dituzte: "Triatloi eskola sortu genuenean ez genuen hain denbora gutxian horren harrera onik itxaroten. Oso pozik gaude". Gainera, aurten, lehenengoz, kadete mailako gazteek Euskal Herriko duatloi eta triatloi zirkuituaren barruan parte hartuko dute. Txelak aurreratu duenez, "uztailean

Triatloi taldeak iaz sortu zuen eskolak 55 gaztetxo erakarri ditu

Durangon gaztetxoei zuzendutako triatloia antolatzeke asmoa daukagu Tabirako igerileku inguruan".

Nagusien helburuak

Mugarra triatloi taldeak Euskadiko duatloi eta triatloi zirkuituko 26 probatan parte hartuko du, eta talde moduan proba guztietan puntuatzea da beste helburu bat. Bihar Oñatiko duatloian parte hartuko dute, esaterako. Durangokoaren aurretik Barakaldokoan ere ibiliko dira, hilaren 21ean, hain zuzen. Triatloi denboraldia maiatzean hasiko da Hondarribian.

Azkenik, aurten Mugarrako 11 atleta saiatuko dira Ironmana egiten; batzuk Lanzaroten, besteak Zurichen. Proba horretako distantziak honako hauek dira: 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika. ■ J.D.

18 Arrastean segitzeko puntu bila

Joan zen asteburuan bana berdindu zuen Durangoko Kulturak etxean. Orain bederatzigarren daude, eta aurrekoen martxa segitu nahi badu ezin du Amurrion galdu.

19 Golf txapelketa DimaGolf-en

Dimatik Otxandiorako errepidean kokatuta dago DimaGolf. Pitch & Putt modalitateko golfa sustatzeko bidean, martxoaren 27an golf torneo bat antolatuko dute lehenengoz.

Bost jardunalditan dirauen bolada txarra amaitu guran

Azken 15 puntuetatik bi besterik ez ditu batu Durangoko Kulturalak



Portugaletek partiduaren hondarrea lortu zuen berdinketaren gola. Ana Dominguez

Talde guztiek izaten dituzte gorabeherak denboraldian zehar. Bederatzi hilebetean errendimendu betean ibiltzea ezinezkoa delako. Kulturala bolada txarrean dabil azken hile eta erdian. Segidan bost partidu daramatza irabazi barik, eta 15 puntu positibetik bi bakarrik batu ditu.

Hala ere, alde positiboari begiratu behar zaionez, azken asteetako emaitza kaskarrekin ez dute play-offetako postua gehiegi aldentu. Kulturala bederatzigarren dago, eta talde asko ditu tartean, baina puntuak erreparatuz gero alde ez da ikaragarria: lau puntu.

Beasainen kontrako garaipena (1-0) izan zen durangarrek hiru puntuak batu zituzten azke-

neko aldia. Ondoren, partidu bi segidan etxetik kanpora jokatu zituen; Lagun Onaki egindako bisitan esku hutsik bueltatu ziren (2-1); Baskoniaren kontra, gutxienez, puntu bat batzea lortu zuten (2-2). Otsailaren erdian Zamudio etorri zen Tabirara, eta merezimendu osoz eraman zituen hiru puntuak (3-0). Elgoibarren berriz ere gol bateko aldeagatik galdu zuten (1-0), eta joan zen astean bana berdindu zuen Portugaleteren kontra. Zortea ere ez zuten alde izan, kanpotarrek partiduaren hondarrea berdindu baitzuten.

Bihar Amurrioren kontra jokatu dute etxetik kanpora. Amurriok Kulturalak baino puntu bat gehiago dauka. ■J.D.

Bihar Amurrion jokatu du; Amurriok puntu bat gehiago dauka sailkapenean

Portugaletek partidu hondarrea lortu zuen berdinketaren gola joan zen asteburuan

Tabirakok galdu egin du igoera faseko lehenengo partidua

Tabirakok ezin izan du irabazi igoera faseko lehenengo partidua. Ardoiri egindako bisitan 71-65 galdu zuten. Ondorioz, lehenengo postuetatik nahiko urrun daude.

Fasea hiru garaipen eta bost porrotekin hasi zuten, sailkapenaren erdian. Orain, zazpi garren daude, Seky.es zortzigarrenagaz berdinduta. Domekan Goierri-Verkol azken aurrekoak bisitatuko du Landako eta, teoriarik, irabazteko partidua dute.

Igoera fasean Cafés Aitona dago lider, zazpi garaipenekin; Viajes Marfilek, Bidegintzak eta Ardoik seina daukate. ■J.D.

Itsaso Pradera Euskal Herriko txapelketa

Saezekin bikotea osatuz, mallabitarrak irabazi du paleta goma txapelketa

Itsaso Pradera mallabitarrak emakumeen Euskal Herriko Gomazko Paleta Txapelketa irabazi du. Labriten jokaturako finalean, Laura Saezekin bikotea osatuz, Contin eta Aristorena menderatu zituzten (30-28).

Norgehiagoka parekatua jokatu zuten, eta markagailuan oreka izan zen nagusi. Hala ere,

30-28 menderatu zituzten, Labriten, Contin eta Aristorena

azken txanparaino beti aurretik joan ziren irabazleak. Orduan, nafarrek aurrea hartu zuten, baina azkeneko sprintean berriz ere bizkaitarra eta gipuzkoarra gailendu ziren.

Uriarte trinketean garaile Bestalde, Adiskide taldeko Rober Uriarte abadiñarrak eta Imanol Agirrek Bizkaiko Trinkete Txapelketa irabazi dute. Torinoson jokaturako finalean, 40-35 menderatu zituzten Kureneko Gordon eta Ugarte. Profesional ohiek euren esperientzia baliatu zuten. ■J.D.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Errege gafea

Liga hasieran esaten nuen errege mago bat bueltatu zela futbolera: Florentino Pérez. Hemendik aurrera, errege gafea deituko diot. Gastatu duen diru guztiaren ondoren, hiru txapelketatik bitan kaleratua izan da Real Madrid. Gogoratu Alcorconeko ikuskizuna, eta orain Lyonek eman dion jipioa. Argi dago diruak ez duela titulurik ematen.

Dena zeukaten prestatuta madrildarrek: Championseko finala euren estadioan jokatu behar den aitzakia horregaz, pentsatzen zuten horraino heltzeko bidea erraza izango zela. Baina futbolekin ez dago arerio txikiarik, eta konfiantzaren enpatxo arriskutsua da. Kanporaketetan egun txar bat izatea oso garesti ordaintzen da; bestela, galdetu Athletici. Orain dela urte batzuk Jabo Iruretauren Deportivo-gaz gertatutako "centenariazo"-aren itxura dauka honek guztiak. Euren etxean, euren begien aurrean...

Datu bat emango dizuet: azkeneko sei Championsetako final zortzirenetan kaleratua izan da, sei entrenatzaile desberdinekin! Horrek asko esaten du klubaren egonkortasunari buruz.

Orain liga bakarrik gelditzen zaie. Pozik daude Barça harrapatu dutelako, baina oraindik asko falta da, euren arteko partidua barne, eta iazko 2-6koa kontutan hartuta, katalanak faborito dira. Ikusi egin beharko da.

Azkenean, futbolekin logika nagusitu behar da: Real Madriden izar pilo bat daude, baina talde modura ez dute ikasi jokatzeko oraindik, eta hori ez bada konpontzen frakasoz frakaso segituko dute.

Adituarentxokoa

Etxeko partiduetan bilatuko dute salbazioa

Sasikoagaz mailari eusteko borrokan dabilzan arerioek Durango bisitatuko dute

Zazpi jardunaldi falta dira oho-rezko A mailako denboraldia amaitzeko, eta Sasikoa azken aurreko dago, jaitziera postuan. Geratzen zaizkien partiduetatik lau Landako kiroldegian jokatu dituzte, eta guztiak arerio zuzenen kontrakoak dira. Beraz, Sasikoak argi du, etxeko partiduetan dagoela gakoa, eta Durangoko puntuak derrigor lotu behar dituztela.

Durango bisitatzeko hurrengo Tecuni Bilbo azken laugarrena izango da. Ondoren, Aretxabaleta hamaikaga-

rren sailkatua etorriko da. Ligako azken partidu biak etxean jokatu dituzte Sasikoak. Lehenengo Donostiako Zuzenbideren kontra jokatu dute; donostiarrek puntu bat gehiago bakarrik dute. Segidan Soloarte azken sailkatua dator Durangora. ■J.D.

Jokatzeko diren zazpi neurketetatik lau etxean jokatu dituzte



Asteburuan 2-7 galdu zuten Peñucasen kontra. Ana Dominguez

Txukun jokatu arren galdu egin du DRTk, eta azkeneko dago

Liga amaitzeko jardunaldi bi besterik falta ez direnean, Durango Ilarduyako nagusien taldea azkeneko postuan dago. Joan zen asteburuan 20-24 galdu zuten etxean, Barcelona Universitario taldearen kontra.

Hurrengo partidua Oviedon jokatuko dute, eta ez dirudi puntuak batzeko toki aproposena denik, laugarren daude eta sailkapenean. DRTk bost puntura du orain Getxo Arteak betetzen duen salbazio postua.

Jardunaldi bi bakarrik falta dira, eta Oviedon jokatuko dute hurrengo

Galdu arren, Aratz Gallastegi gustura dago partidu horretan jokalariek erakutsitako jarreragaz: "Zalantzak nituen ez ote ginen kontzentrazioa eta umiltasunik ez duen taldea bihurtzen ari. Baina BUCen kontra kontzentrazioa, lana eta umiltasuna izan genituen, eta horregatik pozik nago". Hala ere, BUCen kontra erakutsitako osagaiak "partidu guztietan" erabiltzeko eskatu du. ■J.D.

Pitch & Putt zaleentzako torneoa DimaGolf-en



Hiru kategorია prestatu dituzte, aditu ez direnek ere jokatzeko aukera izan dezaten. DimaGolf

DimaGolf klubak Udaberri Torneoa antolatu du martxoaren 27an. Pitch & Putt zaleei bideratutako torneoa da, eta zelai berria ezagutaraztea ere badu helburu. Hala ere, zelaiaren irekiera ofiziala ospatzeko torneoa apirilaren amaiera aldera egingo dutela jakinarazi dute.

Antolatzaileek hiru kategoría prestatu dituzte. Lehenengo 20tik beherako handy capa dutenentzako da; bigarrena 20-

34 artekoentzako, eta hirugarrena 34tik gorakoentzako: "Denei eskaini gura diegu jokatzeko aukera. Horregatik, bakoitzaren joko mailaren arabera kategoriak prestatu ditugu, eta aditua ez denak ere parte hartu ahal izango du torneoa", azaldu du Josu Zabala golf zelaiko gerenteak.

Pitch & Putt jokamoldeari dagokionez, jokoaz gainera, bere inguruan sortzen den giroa

ere azpimarratu du Zabalak: "Hurbileko giroa sortzen da, erlaxatua. Ondoren, luntxa ere eskainiko dugu, eta opari batzuk ere zozkatzen ditugu. Garrantzitsua ez da irabaztea, parte hartu eta denen artean ondo pasatzea baino".

Torneoan parte hartu gura duenak izena emateko bide bi ditu: 94 404 61 47 telefonora deituta edo www.dimagolf.com webgunera sartuta. ■ J.D.

Agenda

SASKIBALOA NAZIONAL MAILA
(gizonak-igoera fasea)

Tabirako - Goleerri
Domekan, 10:00etan,
Landako kiroldegian

NAZIONAL MAILA (emakumeak)
Tabirako - Ardol
Domekan, 12:00etan,
Landako kiroldegian

ARETO FUTBOLA OHOREZKO B MAILA
Elorrioko Buskanta - Allerru Algeposa
Zapatuan, 18:00etan,
Elorrioko udal kiroldegian

EUSKAL LIGA
Sasikoa - Eskoriatza
Domekan, 12:00etan,
Landako kiroldegian

FUTBOLA OHOREZKO MAILA
Berriz - Apurtuarte
Domekan, 11:30etan,
Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)
Elorrio - Baskonia
Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden

BIGARREN ERREGIONALA
Abadiño - Askartza
Zapatuan, 17:00etan,
Zelaietan

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)
Iurretako - Barakaldo
Zapatuan, 18:00etan,
Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)
Elorrio - Basauritar
Domekan, 12:00etan,
Eleizalden

Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

2005 eta 2007 urte artean ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko solasaldiak izan ziren batetik, eta PSE-EE, EAJ eta Batasunaren artekoak, bestetik.

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Uria kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gutxi ezagutzen zituen datuak argituz.

Elgoibarko Txillarre baseritik, Loiolako basilikaraino, Oslo eta Genevako hoteletan barrena.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Inigo Urkullu eta Arnaldo Oteigiren testigantzak.

eskaintza berezia

BERRIaren eskutik **15 €**

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu

www.berria.info

harpidetza@berria.info

943-30 43 45

AUKERA EZAZU,
UZTU EUSKARAZ
berria

Loiola

"Azaroaren 8ak akordioaren eguna izan behar zuen. Jesusen Lagundiko arduradun gukio batzuek ere bazekiten hori, eta horregatik zegoen egun hartan Arupe Etxean ohi baino jesulagun gehiago. Jose Mari Etxebarria Loiolako burua ez ezik, Juan Miguel Arregi jesulagunen probintzia burua ere Loiolan zen, akordioa noz ibiko zela, Erromako buruzagi nagusienkin bitartekari lanak egiteko gertu. Xarpain botila batzuk freskatzeko ere jami zituzten. Arupe Etxeko sukaldako hokailuak. Baina biera urte baino luzeago joan zen eta, negoziatio gelaik ororen batzuk ere erantzuten hasi zirenen, zerbait okertzen hasi zela ulertu zuten".

DENPORAPASAK

HITZ GEZIDUNAK

		Abaok	Nazioa	Gogorik gabe
		Ohar	Nonbait	
		Itxura		
		Alferri-kakoak		
* Irudiko basamortu	Behien arbasoak			
Aransestuka karri	Tontotu, ergeldu			
Zarata		Oinarrizko edari		
Bata		Okoko biztanle		
				Haragiak
Marinelen zerrendak			Oxigenoa	
Modu hartakoak			Arabako herria	
Ipar EH-n, erabat, guztiz	... egin, goitik ari	Areago	Haur	
	Gazte erakundea			
		Errusiako ibaia		
		Anno Domini		
Marianetako uhartea			Kasik, abantzu	
Pl., buru apaingarria			1000	

SUDOKU

1

1	6	5		8	9
		4			3
7	8		2		4
	5			1	3
				8	9
2	9			7	
4	2	6			8
		3	4		9
6		7	5	2	

2

					8	2
9	8	5	3			
5		4				
	7	2		6	4	9
				9	1	3
		9		5		6
7	6		1		4	
						3
4	9	2				

8	4	3	6	9	2	7	5	1
2	2	1	6	6	2	4	7	3
7	9	5	3	1	8	4	6	2
3	8	6	8	6	2	4	5	1
6	5	4	7	1	2	8	3	3
1	7	2	3	6	3	4	5	6
5	1	6	9	6	3	9	7	7
6	2	8	7	3	6	1	4	4
4	3	7	1	6	9	8	2	5

K	V	M	E	D	V	I	D
V	I	•	M	V	U	G	•
I	•	R	•	U	•	N	E
L	•	A	•	R	•	L	•
E	•	A	•	R	•	K	•
K	•	O	•	K	•	A	•
O	•	K	•	L	•	A	•
•	•	A	•	K	•	O	•
•	•	O	•	K	•	A	•
R	•	•	•	S	•	O	•
U	•	•	•	T	•	H	•
U	•	•	•	S	•	V	•
K	•	•	•	R	•	O	•
•	•	•	•	U	•	•	•
•	•	•	•	Z	•	N	•
•	•	•	•	•	•	A	•
•	•	•	•	•	•	S	•
•	•	•	•	•	•	•	•

ZORION AGURRAK

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Unaxek martxoaren 19an bi urtetxo beteko ditu, zorionak eta ondo pasa zure urtebetetzean, osaba, izeko, Jokin, Irati, amama, aitita eta Joneren partez.



Zorionak **Alaitz!** Gure etxeko printzesak sei urte egingo ditu martxoaren 17an. Ondoko pasatu zure egunean eta musu handi-handiak Mikel, aitaxo eta amatxoren partez.



Argazkiko **Junexok** martxoaren 6an bi urtetxo egin zituen. Zorionak ama eta aitaren partez. Segi horrela, marxosa izaten. Musu handi-handi bat.



Maialen Ortiz de Apodakak lau urte egingo ditu martxoaren 16an. Zorionak gure printzesari eta musu handi bat aitaxo, amatxo eta Pauleren partez.



Aner Ayerra Arginzonizek martxoaren 15ean urtetxo bat egingo du. Zorionak Anereta musu gozoz bat familia guztiaren partez.



Zorionak aitaxo **Egoitz!** 34 mosu potolo-potolo Liher, Haitz eta amatxoren partez. Bat? Ez. BI? Ez...Hamar! Ondoko pasatu zure urtebetetze egunean.



Egoitzek joan zen zapatuan bere urtebetetze eguna afari batez ospatu zuen. Zorionak. Gogoratu oraindik zure oparia jasotzeko duzula.



Joan zen domekan bazkari gozoaz ospatu gendun Elorrioko andra dotore honen urtebetetze eguna. Horrelako ama/amama guparik! Zorionak barriro!



Oierrek martxoaren 11an hiru urte egin zituen eta **Saioak** hogeita denak egingo ditu martxoaren 14an. Ondoko pasatu zure eguna eta ia opari asko jasotzen dituzuen. Iker, Aiora, Kurrito eta Itxasoren partez muxu handi bana bio!

HOROSKOPOA



Aries
martxoak 21 - apirilak 20

Bikotekideagaz txarto ulertuak izan dituzu aspaldi honetan, eta horrek zuen arteko hartu-eman ona kaltetu du. Hitz egitea duzue onena.



Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Diru sarreraren bat jasoko duzu laster. Lehen erein duzuna jasoko duzu orain. Hartu kapritxoren bat!



Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Eguraldi onagaz batera animatu eta kalera irtetzeko gogotsu zaude. Eguneko ibilaldiak egiteko asmoa daukazu; ez dadila asmo huts izan!



Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Konturatu zara eta zure jokaera aldatzeko prest zaude, eta zure alaitasuna berreskuratuz duzu. Orain hobeto ibiliko zara.



Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Bidaia bat egitea behar duzu, azkeneko aspaldian oso estresatuta zabilteza-eta. Aste Santurako gutxiago falta da: animo!



Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Lanean denbora asko ematen duzu, beraz, ahalik eta ondoen egoten ahalegintzen zara. Zure proposamenak ere jakitera eman!



Libra
irailak 24 - urriak 23

Aspaldian ez diozu ingurukoek diotenari jaramonik egiten, eta horrela zabilteza, asmatu ezinik. Hala ere, inizatiba izatea ona da.



Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Kirola egitea osasunarentzat ona da. Badakizu hori, baina ez duzu praktikan jartzen. Horrela jarraitzen baduzu, uertu egingo zara!



Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Bikotekidea topatzeko momentu egokia duzu. Zu ere animatuta eta ilusionatuta zabilteza, hori da arrakasta izateko garrantzitsua.



Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Zortea zure alde dago. Dauzkazun asmo guztiak ondo irtengo zaizkizu! Etsipenaren aurrean aurrera jarraitzea besterik ez da geratzen.



Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Gustuko duzun pertsonarengana hurbiltzea lortu duzu, orain hobeto ezagutu eta beragaz konfiantza handiago izatea falta zaizu.



Piscis
otsailak 19 - martxoak 20

Zuretako moduko pertsona bat ezagutu duzu orain dela denbora gutxi. Ez utzi alde egiten.

LORENZO CUBERO

- Eraikuntzak eta erreformak
- Igeltserotza orokorra
- Gremioen koordinazioa

**Ekohareatzaile
zerbitzua.**



Hare ekologiko bidezko garbiketa berezia dispertsiorik gabe, zur zaharrear, harri landuan, hargin-lanetan, grafittietan eta fatxadatan oro har.



"Gustatu egiten zait apustueta dabiltzanen aurpegiak ikustea"

Duela 41 urte Mallabiko elizpean hasi ziren pilota eskolagaz. Tartean zebilen Ricardo Altube ere

Txiki-txikitatik pilota munduan ibili da Ricardo Altube. Mallabian pilota eskola sortzen ibili zen, eta Biharko Izarrak txapelketa bere ideietako bat da.

Zein da pilotagaz lotutako zure lehenengo oroitzapena?

Osabarena. Mallabia II.a izan zen; bere anaia Mallabia I.a. Aita ere oso pilotazalea zen, eta ume-umetatik izan dut pilota buruan.

Mallabiko pilota eskola sortu zenuten...

Bai, 1979an sortu genuen eskola. Sei lagun elkartuta egin genuen. Elizpean egiten genuen eskola; frontoia hondatu-

ta zegoen, eta han ezin. Elizpetik sortu zen, apurka-apurka, Mallabiko eskola. Bertako umeei aukera eman gura genien asteburuetan partidu bat jokatzeko. Durangaldeko Txapelketa ere sortu genuen geroa-

go, eta hori izan zen hemen inguruan eskualde mailan egin zen lehenengo txapelketa.

Kanpoan ere bizi izan zinen, Bartzelonan...

Anaiaz zetan ibili zen han jokatzeko, eta beragaz joan nintzen. Han lan egin eta hango gazte batzuei pilotan erakusten ibili nintzen.

Erakutsi eta jokatu ere egin duzu. Zelan gogoratzen duzu garai hura?

Afizionatu mailan ibili nintzen, eta beno, ez nintzen ez txarra ez ona; erdi mailakoa. Mallabitik beste herrietara joateko aukera askorik ez geneukala gogoratzen dut. Bartzelonatik etorri nintzeanean, torneo batzuk jokatu nituen. Jendea nire alde egoten zela sentitzen nuen. "Altube, Altube" entzuten nituen.

Zelan sortu zenuen Biharko Izarrak txapelketa?

Ni beti ibili naiz pilota munduan, baina ordurako ez neukan horrenbesteko loturarik. Carlos Garcia eta orduko alkate Jose Ramonek esan zidaten Mallabian torneo bat antolatu behar genuela. Nik esan nien egitekotan inon egiten ez dena egin behar genuela. Bestela ez nuela gura. Beti eduki dut buruan horrelako zer edo zer derrigor egin behar nuela, lehenago edo geroago. Txapelketak beti izaten dira antzekoak. Sistema denek denen kontra jokatzeko da, antolatzeo nahiko konplikatu. Biharko Izarrak, gaitasun-

na daukanak aurrera egingo du; laguna makala badaukazu, berdin da. Denekin jokatzeko duzu, onekin eta txarrekin, eta demostratu egiten duzu balio duzula.

Zelan ikusten duzu emakumeen egoera pilotan?

Oso ondo. Hor dugu Itsaso Pradera. Munduko Txapelketan onenetakoa da, eta frontoian dago arduradunagaz eta neskatxoekin... Oso martxa ona dago nesketan ere.

Binakako txapelketan zer bikote ikusten duzu faborito?

Ekin aurretik izan ditut faborito, eta lehenengo partidu biak galdu zituzten Xalax eta Zubietak. Oraindior ere Xalaxa da nire faboritoa. Lehenengo partiduak galdu zituztenean, pentsatu nuen, "hik pilotaz asko jakin, bai, baina idearik bez". Igartzea ez da erraza.

Apusturik egiten duzu?

Ez zait gustatzen. Apustua eginez gero ernegatu egiten da bat. Dirua jokatzeko ez zait sekula gustatu. Afariren bat bai, baina dirua ez. Bost bider jokatu eta bost bider irabazten baduzu, ernegatu egiten da apur bat kontra jokatu duena. Ez naiz inoiz apustuzalea izan, eta hor behintzat ondo ibili naiz. Ni frontoira joaten naizenean gustatu egiten zait ikustea zelan dabiltzan apostuak egiten. Nor dabilen estu eta ze aurpegi ipintzen duten... hori gustatzen zait.

Ricardo Altube •

Mallabitarra

Mallabiako pilota eskola eta Biharko Izarrak txapelketako sortzailea



Juanito Gallastegi Abadea

Etorkinak

Etetik irtetzea baino ez dago, lehen aldizkarietan eta telebistan bakarrik ikusten genduzen aurpegiara asko eta asko geure kaleetan ikusteko. Senegalgoak, Kolonbiakoak... nongoak ez?

Behin baino gehiagotan entzun izan dot: "Horreek hondatu behar gaitue".

Eta esaera horrek, mintzeagaz gain, hausnarketa bidea emon deust:

Denok daukagu, munduan, bizi ahal izateko eskubi-dea.

Etorkin gehienek gurago leukie euren herrietan geratu ahal izatea.

Inork ez leuke izan behar bere herriatik irtetzeko beharri-zanik. Ahaleginak eta bost egin beharra daukie horretarako, neurri batean edo bestean, hori euren esku dabene; goierakundeek.

Bidezkoa da ogia jantzea bizi ahal izateko beste herri batera zoazanean zeure gurasoen izatea eta kultura zaintzea, baina ezinbestekoa da hartu zaituen herriarena norberaganatzea.

Inork ez dauka hartu dituen herriko herritarrei, politikaririk izateko era eta kultura kentzeko edo beste kultura bat goitik behera ezartzeko eskubiderik.

Ez dogu ahaztu behar gure herrian, aspalditxoan, bizi den kopuru handia be handia etorkina dela edo etorkinen seme-alaba edo biloba.

Ez dogu ahaztu behar gu euskaldunok munduko leku askotan etorkin izan gara eta gara, eta gehienetan edo denetan onartuak.

Ez dogu ahaztu behar, guztien eskubideak zainduz gero, aberasgarria dela guztiontzat, norberarena lehenengo jarriz, besteen hizkuntzak, kulturak eta izakerak bezagatu eta norberaganatzea.



GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZISITZAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ